

94

4 euro • 2005eko URTARRILA euskal heziketarako aldizkaria

hh


hik hasi

ELKARRIZKETA: IGOR ARROYO •
EKARPENA: KUADRILLATEGI EGITAS-
MOA • ALBERTO AGIRREAZALDEGI:
ETORKINAK ARTATZEKO PROGRAMA •
GARRALDAKO ESQUALDEKO ESKOLA



GAIA

Nor gara gu? Zer gara gu?
Testu liburuek diotena



GARMENDIA

ONDARRUKO PISTOLERO
BATEN ISTORIOAK...

KIRMEN URIBE & MIKEL VALVERDE



Bazen behin
alfabeto bat asmatu
zuen gizon bat...

IRAKURTZEA...

ABENTURARIK

HANDIENA



Bazen behin elefante
baten lagun egin
zen mutiko bat...



Bazen behin gaueko
arbelean ametsak margotzen
zituen haur bat...





gaia

NOR GARA GU? ZER GARA GU? TESTU LIBURUEK DIOTENA

Gurutze Ezkurdia EHko Bilboko Irakasle Eskolako irakasleak *Identitatea eta ingurunea curriculumean* gaia lardu du bere tesian. Bere ikerketari buruzko datu eta eraitza interesgarriak azaltzen ditu haren.



elkarrizketa

IGOR ARROYO

EHEE Euskal Herriak Bere Eskolako koordinatzailearekin mintzatu gara ekimen horrek daraman ibilbideaz eta, oro har, euskal hezkuntza sistemaren eta eragileen osasunaz.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

NOR GARA GU? ZER GARA GU? TESTU LIBURUEK DIOTENA

Gurutze Ezkurdia

16 elkarrizketa

IGOR ARROYO

23 gehigarria

Familia ereduak lantzeko materiala

BEROA, UME ALAIA, AGIPASE eta GEHITU

28 ekarpena

Kuadrillategi egitasmoa

Koadriletan euskara erabiltzeko saiakeraren emaitzak
Diego Egizabal

33 kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

Alberto Agirreazaldegik: "Gaztelania soilik jakitea ez da nahikoa euskal gizartean, eta hori argi adierazi behar zaie etorkinei, batez ere latinoamerikarrei"

37 berriak

44 Muga guztien gainetik... euskaraz!

Garraldako eskola

Eskualdeko haurren topagune

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408

Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Airhoa Azpiroz
Erredakzioa: Joxe Mari Auzendi, Ixiar Eizagintze Erredakzio batzordea: Mikel Estorika, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko Aines Dufau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Iontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Gobilu. Diseinua: TRAM Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L.
Azaleko irudia: Garalda herria (Hik Hasi). Aldizkari honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egokitasun-aitormena du.
Data: 2004-XII-17. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

hik hasik

zure parte-hartzea

ezinbestekoa du harpide zaitez!

40 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

www.hikhasi.com

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena.....1. Deitura.....
2. DeituraTel.:.....
HelbideaPosta Kodea.....
Herria.....Herrialdea.....
Ikastetxea.....Herria.....
IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA
SARIAK
(BEZ barne)

40 euro

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54



editoriala

urtarrila

Euskara ezagutzeko eskubidea eta betebeharra



Abenduaren 30ean, Gasteizen, Eusko Legebiltzarrean Euskadiko Estatutu Berrirako Proposamenaren testua eztabaidatzeko zenean, Euskararen Kontseiluak ondoko agerpena egin zuen:

“Datozen urteetarako ordenamendu juridikoa izan daitekeena erabakiko da orain. Euskarak, hizkuntza normalizatu bat izan dadin, behar ditu gutxieneko baldintzak, gutxieneko neurriak. Hizkuntz eskubideei buruz egiten den aipamena interesgarria dela uste dugu. Baina, ez da nahikoa. Ez, behintzat, ez badituzte gehitzen asmo horiek errealitate bihurtuko dituzten neurri zehatzak. Gernikako estatutuak ere euskara erabiltzeko eta ezagutzeko dugun eskubidea aitortzen zuen, proposamen berri honek egiten duen bezala baina, gaur egun, 25 urte beranduago, eskubide horiek ez dira errealak. Beraz, berriro hori gerta ez dadin honako neurri hauek kontuan hartzea ezinbestekoa da, bestela, normalizaziorik gabeko beste mende laurden baten aurrean egon gintezke.

Estatutu proposamen horrek markatuko ditu hurrengo urteetan euskararen ezagutza eta erabilera zein izango den, onartzen bada, behintzat, eta horrek markatuko ditu hurrengo urteetan euskarari dagozkion erabakiak; azken batean, euskarak ze egoeratan aurre egingo dien datozen urteei!

Beraz, biharko eztabaida horretan parte hartu behar duten alderdi politiko eta parlamentari guztiak erantzukizun handia dute, eta horregatik deia luzatzen diegu kontuan har dezaten hurrengo urteetarako euskararen etorkizuna erabakitzen ari direla, besteak beste! Eta Kontseiluak eta bertan ordezkaturiko euskalgintzak hau eskatzen die: kontuan izan dezatela bozkatzerakoan honako hau:

1- Euskara berezko hizkuntza dela hemen eta, euskal herritar guztiak izan behar dutela, euskara ezagutzeko eskubidea eta betebeharra. Horrek gure ordenamendu juridikoan jasota gelditu behar du euskararen normalizazio osoa lortu nahi badugu zeren eta, hori egin ezean ez baita posible izango aurrerapauso serio-

Euskarak ondoan elkarbizitzan dituen bi hizkuntzek dituzten eskubidea eta betebeharra izan beharko lituzke, bestela, ezinezkoa da normalizazioaren bidean urratsak eratea.

Nola liteke, Euskal Herrian, gaztelania eta frantsesa demingozkoak izatea eta euskara ez?

ak ematea normalizazioaren bidean. Herritarrek beren osotasunean hizkuntzaren ezagutza dutenean aukera errealak izango ditugu hizkuntz eskubideak urra ez daitezen.

2- Funtsezkoa dela, beraz, gure belaunaldiak euskaldunak izatea. Hori kostata ala kostata bermatu behar dela, eta horretarako neurri zehatzak hartu behar direla. Hartu eta bete, epe jakin batzuk ipiniz, gainera.

3- Hizkuntz politika oso bat aplikatu behar dela, eraginkorra, epeduna, helburu zehatzak eta lorgarriak dituena, administrazio guztiak inplikatzeko dituena eta sailartekoa. Hizkuntz politikak gizarte sektore guztietara iritsi behar du modu orekatuan garatuz ezagutzaren hedapena eta hori erabiltzeko aukerak.

Gaur hemen bildu garen hainbat eta hainbat euskaltzaleren eskakizuna parlamentariak kontuan hartzea nahi eta espero dugu. Hala izan dadila euskararen osasun eta iraupenerako.”

HIK HASIk bat egiten du Kontseiluak aurkeztutako testuarekin.

kronika

Euskal Herriak Bere Eskolak, Euskal hezkuntza sistema propioaren aldeko herri ekimenak, beste urrats bat eman du euskal unibertsitateari begira. *Ezina ekinez egina* agirian jaso ditu azken hilabeteetan euskal unibertsitatearen inguruan bildu dituen iritziak. Agiri hori maiatzean egin zuen, eta orain, UEUko Euskal Unibertsitatearen aldeko Sustapen Batzordearen esku utzi du, horrek hartu baitu Euskal Unibertsitatearen inguruko egitasmoa definitzeko eta garatzeko ardura.

Aipatu agiria urtarrilaren 22an eztabaidatuko da UEUk antolatutako *Euskal Unibertsitatea Eginez* mintegian. 70 lagun inguru bilduko direla aurreikusten da eta bertan euskal unibertsitatea definitu nahi da. Bere alderdi juridikoa, ekonomikoa, akademikoa eta soziologikoa aztertuko dira, gerora eman beharreko pausoak finkatzeko. *Ezina ekinez egina* agiria euskal unibertsitatearen gainean egindako ekarpen teorikoa da, baina euskal unibertsitatea egingarria den proiektua izanik, oinarriko bost galderen erantzuna ematen saiatu dira agirian: zer, zergatik, zertarako, nolako eta nola.



Euskarazko irakaskuntzaren aldeko aldarria ozen entzun zen Baionan

Hiru Sareta euskarazko irakaskuntzaren aldeko elkarteak deituta manifestazioa egin zen Baionan abenduaren 11an. Frantziako Hezkuntza Ministerioak euskarari ematen dion tratatua salatuz zuten bertan bildu ziren 3.000 lagunek.

Horiekin batera, inguruan polizia ugari bildu ziren eta manifestariak furgonetaz babesturik egon ziren. Nonbait, manifestazio arriskutsua zela pentsatuko zuten.

Hiru Saretak xede nagusi batekin deitu zuen manifestazioa: Frantziako Gobernuak euskarazko irakaskuntzarekiko duen jarrera salatzea. Horren aurrean, euskarazko irakaskuntzaren kontra sare guztietan hartzen dituen

erabakiak alde batera uzteko eta laguntza emateko eskatu zen. Hain zuzen ere, egun batzuk lehenago Dominique De Villepin Frantziako Gobernuko Barne Ministroak agertutako jarrera ere kritikatu zuten. Seaska, Biga Bai eta Euskal Haziak erakundeetako ordezkariak. Besteak beste, euskal irakaskuntzako lanpostu murrizketak justifikatu zituen, eta baita IPE egiturarentzat iragarri baino diru gutxiago emango zela esan ere.


Era berean, Iparraldera egindako bisitan De Villepinek esan zuen euskarazko irakaskuntzaren eskaera neurtu egingo dela. Hiru Saretako ordezkariak ez ziren batera graziarik egin iragarpen horrek. Haien hitzetan, eskaria ongi baino hobeto neurtua dago lehendik ere. "Behin eta berriz egin dira eskaera sozialaren neurketak eta ez dugu denbora gehiago galdu behar horretan, euskara gibelera doa eta".

Maulen ere kalera atera ziren ikastegi teknologikoko ikasle, irakasle eta gurasoak eta manifestazioa egin zuten abenduaren 7an. Bordeleko errektoretzak aukerako sei ikas sail kendu nahi ditu, horietako bat euskararena.

Ikastegia Sohütan dago eta handik Mauleko udaletxeraino joan ziren oinez 300 metroko ibilbidea eginez. Ikastegi teknologiko hau Zuberoan sare publikoko irakaskuntza orokorrerako dagoen bakarra da.

Zenbat eta hobeto ezagutzen dugun gizartea, orduan eta hobeto chartuko gara eskola bezalako mikrokosmos horretan gertatzen denaz.

Emile Durkheim



Hezkuntza legeak eztabaidan dira

Frantziako Hezkuntza Ministerioak iazko ikasturtean eman zion hasiera hezkuntzaren inguruko hausnarketari, eta berriki eman ditu ezagutzera proposamen berriak. Frantziako hezkuntza sistema birmoldatuko duen lege berriari begira, 14 proposamen aurkeztu ditu Francois Fillon Frantziako Hezkuntza ministroak. Proposamenak hiru ataletan banatu ditu eskola "eraginkorragoa, bidezkoagoa eta irekiagoa" izateko xedez. Dagoeneko sindikatu gehienek gaitzetsi dute egitasmoa.

Otsail edo martxoan aurkeztuko da lege egitasmoa Parlamentuan eta 2005eko lehen seihilabetekoan eztabaidatuko da bertan. 2006/07 ikasturtean legea martxan jartzeko asmoa agertu du Frantziako Gobernuak.

Estatu espainiarrean ere PSOEk

abian jarri du legea aldatzeko asmoa eta hezkuntzari buruz egindako txostena Autonomia Erkidegoetan aztertzen ari dira. Eusko Jaurlaritzak xede horrekin antolatu zuen Hezkuntza Foroa abenduaren 16 eta 17an. Hezkuntza eragileekin bildu eta euren iritziak ezagutzeko asmoz egin nahi zuen aipatu foroa Hezkuntza Sailak, baina eragileen aldetik kritika ugari izan dira. Gehienak kexu agertu dira antolaketa dela-eta. Forora joan aurretik Hezkuntza Sailak igorritako txostena irakurtzeko, lantzeko, eztabaidatzeko eta proposamenak eta ekarpenak egiteko denborarik ez dutela izan adierazi dute. Zentzu horretan, Hezkuntza Sailak onartu du presaka ibili dela Foroan eztabaidatutako gaien ondorioak Espainiako Hezkuntza Ministeriora bidali nahi zituelako, eta hori abenduaren amaierarako egin behar zuelako.

Horrez gain, zenbait eragileren ustez, Foroan gaiak aztertzeko eta eztabaidatzeko modua edo metodologia ez zen egokia.

EILAS, ELA, LAB eta UGT sindikatuek ez zuten parte hartu Foroan, eta Ikastolen Elkarteak ere ez. Sindikatuek hasieratik agertu zuten kontrako jarraera, orain arte haien iritzia ez delako aintzat hartua izan mahai gainean ditzuten beste zenbait gaietan. Kanpoan elkarreztatzea egin zuten.

Eliza Katolikoaren iritziak eta kanpainak ezinegona sortu du gizarteko hainbat eragileren artean, eta bildu eta agiri bat sinatu dute. *Eskola, jendartea, herria... laikoak* da agiriaren izenburua eta zera dio, besteak beste: "dei egiten diegu gobernuetan agintari ditugunei, bakoitzak bere esku dituen eskuduntzetan berma dezala euskal jendartearen laiktasuna, edozein erlijio talde integristak eskola, osasun zerbitzuak edo administrazioak babestutako beste edozein jarduera baldintzatzeko eduki ditzakeen asmoak galaraziz". Agiriaren sinatzaileak ez daude erlijioaren kontra, baizik eta "euren sinesmenak jendarte osoak ezinbestean bete beharrekoak direla pentsatzen duten integrista intoleranteei" aurre egiteko. Agiriak dioenez, Espainiako Apezpiku Batzarrak "euren jainkoaren izenean bizimodu zurrin eta itxia inposatu nahi diete herritar guztiei; bizikidetzan, demokraziarekin zerikusi gutxi duten arau moraletan oinarritu nahian". Sinatzaileen artean daude Euskal Herriko gay mugimendu gehienak, Lesbiana Feministen Kolektiboa, BIGE Bizkaiko Ikasleen Guraso Elkarteak, EILAS, LAB eta CCOO sindikatuak, BOM okupazio mugimendua, Hiesaren Aurkako Batzordea eta Eliza Gara taldeko. Hemendik aurrera agiria zabaltzeko asmoa dute, ezagutzen ez dutenek aztertu eta beregana dezaten eta sinatzeko aukera izan dezaten.

Nor gara gu? Zer gara gu?

Testu liburuek diotena





Identitatea, ingurunea eta curriculumuma

Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailean defendatutako *"Identitatea eta Ingurunea Curriculumean"* tesiari buruzko laburpena duzu hau, irakurle. Euskal Herrian XX. mendean testu liburuen bidez garatu den curriculum ofizialaren edukien azterketa egiten den ikerketa handi baten hiruugarren fruitua da, oinarri bereberean sustatzen baitira EHUK argitaratutako M. Bego a Bilboaren tesia (2002) *Kultura erreferenteak oinarriko hezkuntzako curriculumean*. Euskal Herriko eskolatan eta Karmele Perez Urrazarena ere (2003) *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testu liburuetan*, aldizkari honetan aspalditxo laburtuak eta komentatuak izan direnak, bestalde. Esku artean duzun honetan, ordea, inguruneak eta curriculumean hautatutako ezagutza ofizialak identitatearen eraikuntzan duten eragina aztertzen da, testu liburuetan lurraldeari eta historiari buruzko edukiei ematen zaien testuingurutzaren bidez. Ikerketari buruzko datu batzuk ematen ditugu lehenik, oinarri teorikoari buruzko aipamena egiten da ondoren, ikerketaren eraitzen laburpenarekin amaitzeko.



Gurutze EZKURDIA

EHko Bilboko Irakasle Eskolako irakaslea

Oinarrian dagoen ikerketari buruzko datu batzuk

Ikasleak ikasten duen edukia curriculumean hautatua dagoen ezagutza ofizialean oinarritzen da. Curriculum ofizialaren eta irakaslearen artean testu liburua aurkitzen dugu. Honetan, gelako irakaslearen lana bideratzeko, errazteko eta arintzeko edukia hautatua dator, irakas-modua markatua, ebaluaketa proposatua. Testu liburuan argitaletxe bakoitzak bere "itzulpena" egiten du eta edukiaren gaineko ikuspuntu desberdinak agertu. Irakasleak, curriculumaren bertsio bat aukeratu eta erabili baino ez du egingo. Horrek guztiak ikaslearen garapenean, zein ezagutzaren eraikuntzan, zein identitatearen definizioan, eragin zuzen-zuzena izango du.

Testu liburuen gaineko ikerketa nagusiak hiru paradigmen arabera sailkatu ditugu, bakoitzean ikerlari edo talde garrantzizkoenak aipatuz. Gure artean era askotariko lanak burutu direla ikus daiteke: historiako edukiaren ideologia aztertzen dutenak, testu liburuaren deskribapen orokorra egiten dutenak, edo euskal curriculumuma lantzen

den edo ez azaltzen dutenak. Paradigma kritikoan zabaltzen diren ikerketa lerroak dira testu liburuetako edukiaren izaera aztertzen dutenak. Guk ildo horri jarraituz edukiaren izaerari heldu diogu, zientzia eta teknologiaren garapena, edo lurraldetasuna eta historiari buruzko edukiaren izaera, zein euskal kulturaren definizioa aztertuz.

Horretarako, edukiaren azterketan kode idatzia eta ikonografikoa hartu ditugu kontuan, elkarrekin irakurritik, batetik dioena besteak azpimarratu edo nabarmendu egiten duelako, edo kontrako gerta daiteke, idatziak eta ikonoak diotena bat ez etortzea. Edukia aipatua denean testuinguru ezberdinetan aztertu dugu; edukia ez aipatua, hots isildua, izan denean ere jaso dugu. Omisioa ere neurtu beharra dago eta gure ikerketan, ikonoz ikono aztertzean zehatz zenbatu daitezke omisioak ere.

Testu liburuak izan duen garapenean, teknologiak nahiz pedagogia eta psikologiako teorizazio berriek izan



G



dute eragina. Asko aldatu dira testu liburuak XX. mendean zehar: 1925eko *Xabiertxo*-tik, -sasoiko euskal curriculumaren ikuspegitik osotua dagoena eta oso erabilia izan dena ikastoletan irakurketa liburu moduan, modernoa eta aurrerakoa izan zena bere sasoiaren, Psikologia konstruktibistaren ekarpenak jasotzen dituzten testu liburuetatik pasa eta, azken sasoi modernoraino, Iparraldeko *Iguzki Lore* bezalakoak, zeinetan benetako radiografiak erabiltzen diren hezurdura erakusteko, eta termografiak gorputzeko tenperatura desberdinak adierazteko.

Euskarazko ekoizpenaren garapena ikusirik, hiru epe edo aro mugatu ditugu gure azterketarako: lehenengoa Iparraldetik abiatu zen, Bizkaiko auzo-eskolekin eta lehenengo ikastolekin, Eusko Jaurlaritzaren sorrerarekin batera, baita euskararen batasunarekin ere. Sasoi horren amaieran talde pedagogiko berritzaileak sortu ziren: Gordailu eta Iker. Bigarrenean, Elkar, Erein edo Ibaizabal argitaletxe komertzialak sortu ziren eta talde pedagogikoak desagertu. Hegoaldean, euskara zein euskarazko irakaskuntza arautu zen, eta euskarazko ikasmateriala bultzatu. Sasoi horretan hasi ziren Estatuko argitaletxeak euskaraz argitaratzen. Hirugarrenean Hegoaldeko lege aldaketa dela-eta, eskolarako liburu asko argitaratu eta kanpoko argitaletxeen eragina indartu zen. Iparraldean ere, Ikas-Bik argitaletxe frantsesetatik moldatu eta euskaratu egiten dituzte testu liburu batzuk eta Ikas-ek sortu.

Ikerketa burutzeko, testu liburuak zentzu modernoan ulertuta sortzen denetik, 1876tik hasita 2000. urtera arteko euskarazko testu liburuak aztertu ditugu, baita gaztelaniazko eta frantseseko parekoak ere. Ingurunearen Ezaguera, Geografia, Historia, Zientziak eta Teknologia aztertzen duten testu liburuak aukeratu ditugu, arlo horretan lantzen direlako ikaslearen ingurune hurbilari dagozkion ezagutzak, eta Euskal Herria bera eduki moduan lantzen duen arloa delako. Gai horiek 11 urteko ikasleek lantzen dituzte, Hegoaldeko Lehen Hezkuntzako 5. mailan, Iparraldeko hirugarren zikloko CM2an. Ikertutako lagina honela antolatu dugu: lehen aroko 14 liburu, bigarrenekoak 26 eta hirugarrenekoak 30; guztira 70 testu liburu, 13.310 orri irakurri eta 22.228 ikono neurtu, kokatu eta deskribatu ditugu.

Curriculum ofizialaren eta irakaslearen artean testu liburuak aurkitzen dugu. Hor edukia hautatua dator, eta beraz, irakasleak curriculumeko bertsio bat aukeratu eta erabili baino ez du egingo. Horrek guztiak ikaslearen garapenean, zein ezagutzaren eraikuntzan, zein identitatearen definizioan, eragin zuzen-zuzena izango du.

Horretarako, orrialde bakoitzean idatzita datorrena irakurri eta zenbatu ostean, ikono bakoitza neurtu, kokatu, zenbat kolore dituen esan, eta deskribatu egin dugu. Bi eratako datu baseak osatu ditugu: lehenengoa, testu liburuaren ezaugarri formalak agertzen dira, zein hizkuntzatan, aroa, urtea, argitaletxea, non argitaratua... Bigarrenean, ikonoen ezaugarriak biltzen dira bakoitza zenbatuta, dagokion liburuak, zein hizkuntzatan, aroa, argitaletxea, nongoa, zer koloretakoa den, kokapena eta bera edo gehiago dauden orrialde horretan. Hortik aurrera ikonoaren edukiaren deskribapena egiten dugu testuinguruarekin duen zerikusia neurtuz. Ikonoen testuinguruak neurtzeko sei aldagai ditugu:

1. Euskal historikoa: zeinetan ingurune soziokulturala neurtzen den, Euskal Herriari dagokiona, errealitate historikoa errespetatuz.
2. Euskal juridikoa: Estatuaren antolaketa juridiko-administratiboa deskribatzen duena.
3. Nahasia: egoera nahasia aurkeztu denean.
4. Erdal: Euskal Herrikoa ez dena, Estatu espainol edo frantziarretik kanpokoak.
5. Estatala: Frantziako eta Espainiako estatu-nazioen berri ematen denean.
6. Zehaztugabea: inon lekutu barik agertzen diren edukiak.

Identitatea eta ingurunea curriculumean

Horrek guztiak oinarri teoriko bati eusten dio. Giza eta Gizarte Zientzietan aurkitzen ditugun zutabe teorikoen artean, -jarrera enpiriko analitikoak, zeinetan positibismoa eta arrazionalismo kritikoa desberdintzen diren; jarrera interpretatzailea, interakzionista eta etnometodologikoa, eta, jarrera kritikoa eta dialektikoa, Marxen ekarpenak eta Frankfurtoko eskolaren ekarpenak jasotzen dituenak-, guk jarrera kritikodialektikoan kokatzen dugu gure ikerketa. Hezkuntzaren arloko ikuspegi nagusiak aurrekoetan oinarritzen dira: Determinismoa: Tekno-funtzionalista

GAIA

Identitatea eta ingurunea curriculumean

G

eta Estrukturalista. Bi joeren determinismoa zuzentzeraz datoz Interakzionalismo sinbolikoa, soziologia fenomenologikoa eta etnometodologia, metodo kualitatiboak aldarrikatuz. Eta bien kritika eta zuzenketa egiten dute Erreproduzioaren eta Produzioaren teoriariek. Horientzat, Hezkuntzak gizarte harreman kontraesankorren artean gizarte fenomenoak –linguistikoak, ekonomikoak, generoarenak, kulturak...-, birsortu edo erreproduzitu ez ezik, erresistentziak ere sortzen ditu. Autore horien esanetan, gizarte kontraesanak maila anitzetan gertatzen dira, batetik, Estatu demokratiko liberalean, familia patriarkalean eta jabetza pribatuan; bestetik, kontraesanak gizarte esparru bakoitzaren barnean ere badira. Baina, Paulo Iztuetak dioenez, Estaturik gabeko etnonazioen ikuspegitik begiratuz gero, beste kontraesan batzuen gurutzaketa aurkitzen dugu, Estatu-nazioaren izaera multinazionala eta Estaturik gabeko etnonazioena, eta, honekin lotuta, hizkuntza hegemonikoaren eta hizkuntza gutxituen artekoak, bi nazio mota, alegia.

Apple-k, Bernstein-ek eta Bourdieu-k egiten dituzten ekarpenetan identitatearen, curriculumaren eta hegemoniaren arteko harremanak kontuan hartuta, ezagutza ofizialaren eta identitate pedagogikoaren arteko harreman hegemonikoak lantzen dira. Curriculumean hiru osagai aztertzen dira: Ezagutza, Hegemonia eta Identitatea. Ezagutza ofizialak Ingurune hegemonikoa islatzen du; Ez ofizialak, Ingurune ez hegemonikoetako beste ezagutzak. Hautatutako edukia eskola ezagutza bihurtzen da harreman hege-

monikoen bidez Ingurunea, Ezagutza eta Curriculuma elkar lotuz.

Identitatea Ingurunearekin elkarreaginean eraikitzen da Vigotski-ren esanetan, eta curriculumeko ezagutza hautatuaren bidez definitzen, Bernstein-ek identitate pedagogikoetan laburbildu duena.

Beraz, gure ikerketaren oinarrian hiru esparru desberdin ditugu: identitatearena, ingurunearena eta curriculumarena. Lehenengoan, Castells-en ustez hiru mota daude:

- Legitimatzailea: gizarteko erakunde menderatzaileek sortua eta hedatua bere hegemonia zabaltzeko eta arrazionalizatzeko.

- Erresistentzikoak, menderakuntzaren logikak sortua. Egoera ez hegemonikoetan sortutako erresistentzien fruitu. Proiektu identitatea, aktore sozialek haien kokapena birdefinitzean sortzen da, gizarte guztiaren eraikuntza aldatzea bilatzen dutenean.

- Bestalde, Bernstein-en identitate pedagogikoa ere kontuan hartu izan dugu, ezagutzen karreraren eta oinarri kolektiboen artean egiten den uztarke-

ta baita.

Bi ingurune mota mugatu ditugu, bestalde:

- Hegemonikoa, Estatu-nazioaren ezaugarrietan oinarritzen dena

- Eta soziokulturala, estaturik gabeko nazio soziokulturalen erresistentzi moduak biltzen dituen. Bien oinarrietan honako ezaugarriak aurkitzen ditugu:

* Ingurune hegemonikoan indibidualizazioa eta klase sozialak, zeinetan hiru subjektu mota desberdintzen ditu-





gun: politikoa, ekonomikoa eta kulturala. Ingurune soziokulturalen herri kolektibitatean sozializatzea aldarrikatzen da

* Legeak araututako sistema eta berau betearazten duen bortxaren aurrean aldarrikapen politiko-juridikoa dugu.

* Lan intelektuala eta eskulana, curriculum hegemonikoan uztartzen direnak. Intelligentsia euskaldunaren eta Euskal Herriko curriculum nazionalaren aldarrikapenak.

* Estatu guztiak duten espazioa eta denbora, lurralde eta historia kontzeptuetan islatzen dira neurri batean behintzat. Nazio soziokulturalaren lurralde eta historia nazionalak eskatzen dira.

* Hizkuntza eta kultura ofizial hegemonikoen aurrean, aldarrikapen etnolinguistikoa eta kulturala egiten dira.

Hiru arloak Curriculumean konbinatzen dira edukiak hautatzerakoan ezagutza ofizialaren gainbaloraketa eginez. Curriculumean ezagutza bi modutara antolatzen da, modu integratuan eta agregatuan. Lehenengoan, ezagutzak oso gutxi enmarkatzen dira eta diziplinarte zabalean biltzen dira. Horren adibide dugu Ingurunearen Ezaguera arloa, haurra espazio hurbiletik urrunekora eramaten da. Modu agregatuan, ordea, ezagutzak diziplinen arabera antolatzen dira eta euren arteko banaketa zehatzagoa da. Iparraldeko ereduak dugu, Geografia, Historia, Zientziak eta Teknologia eta Heziketa Zibikoa. Haurra ingurune hurbiletik barik urrunekotik abiatzen da lurraldea aztertzeraz.

Ezagutza Zientifikoa, beraz, moldatu egiten da irakaste-ikaste prozesura: lehenik eta behin, ezagutza akademikora moldatzen da, diziplinara. Gero,

diziplinatik edukia irakasgai bihurtzen da irakasleak eta ikasleak, elkarreaginean, erabiltzeko ikaste-irakaste prozesuan. Geografia eta Historia, diziplina biltzaileak ditugu eta modu zehatzetan lantzen dira testu liburuetan, Geografiaren bidez espazioaren eraiketa kontzeptuala egiten dugu eta Historiaren bidez denboran ematen den aldatetaren kontaketa. Testu liburuetan espazioa deskribatu egiten da, aztertu eta eraiki. Historia eszena eta gertaeren bilduma kronologiko bezala aurkezten da batzuetan, prozesuen bilduma kronologiko bezala beste batzuetan, edo, interesgune askatzaileei erantzuteko eraikitako historia bezala gutxienetan. Bai espazioa zein denbora modu grafikoan lantzen dira, mapak espazioaren irudikapena egiten duen bitartean, kronogramak denboraren irudikapena bideratzen du.

Eduki historikoaren izaera


Eduki historikoa aro historikoetan antolatua lantzen da aldagai desberdinen bidez: eszenak, monumentuak, pertsonaiak, kronogramak, mapa historikoak, monumentuak eta eraikin historikoak, azken horiek gero eta erabiliagoak, bestalde, turismo eta aisialdiarekin lotuta. Kronogramaren bidez denboraren antolaketa grafikoa egiten da, historiaren ildoak adieraziz. Horiek

era askotakoak dira. Iparraldekoak oso zehatzak, gaiaren arabera antolatua eta Frantziarekin lotutakoak beti. Hegoaldeko testu liburuetan ez dira hain zehatzak eta gutxiagotan erabiltzen dira. Dena den, kronogrametan islatzen diren gertaerak denak dira izaera estatalekoak. Ez dago Euskal Herriko historiari buruzko kronogramarik.

Ikono historikoen izaerari begiratu gero, lehen eta bigarren aroetan estatalkak dira gehienak, bigarrean oso gutxi dira soziokulturalak eta erdal izaerakoak. Hirugarren aroan izaera estatala mantendu egiten da, baina juridikoaren eta nahasiaren ehunekoak handitzen dira hegemonikoa indartuz. Zehaztugabeko ikono historikoen kopurua gero eta handiago da.

Gure historian gauzatu eta galdu zen entitate politikoa adierazten duen Nafarroako Erresumaren tratamendua ere aztertu dugu. Nafarroako Erresuma islatzen duten mapa historikoen artean, gehienetan erabiltzen dena Behe Erdi Aroko egoera islatzen duena da. Lehen aroko Nafarroako mapak soziokulturalak dira, bigarrean estatalkak. Hirugarrenean, estatala nagusi den arren, zehaztugabe eta modu nahasian testuinguraturik aurkitzen dugu Nafarroako Erresuma. Espainian dagoen Euskal Herriarekin loturik, akaso? (ikus 1. grafikoa).

1. grafikoa





GAIIA

Identitatea eta ingurunea curriculumean

G

Lurraldea islatzen duten ikonoen izaera, argazkiak eta mapak

Euskal Herriko itxura fisikoa lantze-ko paisaia gero eta erabiliagoa da, Be-goña Bilbaoren tesian adierazten denari jarraiki. Baina paisaia ordenatu eta lurralde bezala kontzeptualizatzeko mapa behar dugu. Mapak espazio kontzeptua eraikitzen laguntzen du, hau da, lurraldea definitzen du. Lurraldetasunaren adierazpenean mapak duen esanahia handia da.

Lehen eta bigarren aroetan erabiltzen dira mapa gehien. Bigarren arotik hirugarrenera mapa gutxiago erabiltzen da, eta, Euskal Herriko paisaiak gero eta gehiago dira, batez ere hirugarren aroan, 1991-2000, gure ikerketan burututako froga estatistikoak aditzera ematen digunaren arabera (Bilbao, 2002). Lurralde jakin batekin lotutako espazioa barik, Euskal Herria gero eta lotuago aurkitzen da paisaia eta turismoarekin.

Euskal Herriko lurraldea zatikaturik aurkezten da testu liburuetan: gehienetan lurraldearen zati bat baino ez; edo Euskadiko Autonomia Erkidegoa, edo Nafarroako Foru Elkarteak; bata ala bestea, inoiz ez elkarrekin, Espainiako mapa autonomikoan izan ezik. Frantziako kasuan, batzuetan, Hegoaldeak aipatzen den arren, Iparraldeko lurraldeak ez dira agertzen. Frantzian ez dago Euskal Herririk.


Mapak islatzen dituzten edukiak era askotakoak dira. Lehen aroko maparik gehienak ekonomikoak dira, edo fisikoak. Bigarren aroan fisikoak eta politikoak lantzen dira gehien, gero ekonomikoak. Hirugarrenean politikoak nagusitzen dira garbi. Mapak lurraldea islatzen dutela esan dugu: lehen aroan, 1876-1975, maparik gehienak Frantziakoak diren bitartean, bigarrenean, 1976-1990, Espainiakoak dira gehien. Hirugarrenean, 1991-2000, Espainia Autonomikoa nagusitzen da, EAEkoak eta Nafar Komunitatekoak ere autonomikoak direlako.

Euskal Herriko mapak gero eta modu ugariagoan erabiltzen badira ere, inoiz ez dira heltzen aurrekoen kopuruetara. Mapen izaeren artean, bestalde, izaera estatala nabarmentzen da hiru aroetan. Izaera soziokulturala bigarren aroan da erabilien eta hirugarrenean, horren ordeztuta estatala indartzera, juridikoa dator (ikus 2. grafikoa).


Kostaldeko Euskal Herria da, industrial, gehienetan agertzen dena, barrualdekoa gutxiago.

Ikusten den Europa ofiziala da, estatala, ekonomikoa eta ez soziokulturala. Europa Estatuena da, eta Estatuak Europari begira daude.

2. grafikoa



3. grafikoa



Euskal Herriko lurralde historikoak XX. mendeko testu liburuetan oso ehuneko desorekatuetan agertzen dira: sarriren lantzen den lurraldea Gipuzkoa dugu, eta Bizkaia, gero. Barrualdeko lurraldeak, Nafarroa eta Araba, askoz gutxiago, aurrekoen erdia gutxi gorabehera. Iparraldeko hiru lurraldeak, bestalde, aipatu baino ez dira egiten (ikus 3. grafikoa).

Kostaldeko Euskal Herria da, industrial, gehienetan agertzen dena, barrualdekoa gutxiago. Nekez eta zailtasun handiz eraikiko du Euskal Herriko haur batek bere identitate soziokulturala, bertako lurraldeen arteko uztarriak modu koherente eta nazionalen lantzen ez badira.

Barne antolaketari buruzko edukia oso desorekatuak badira, Europarekin eta munduarekin dugun harremana ere desorekatua eta urria da. Gu txitan aurkitzen dugu horrelako irudirik. Ikusten dena Europa ofiziala da, estatala, ekonomikoa eta ez soziokulturala, bigarren aroan Saioka Proiektuan lantzen zen modukoa. Europa bigarren eta hirugarren aroko testu liburuetan lantzen da, azken honetan gutxitxogo, beti modu estatalean, Europa Esta-

tuena da, eta, Estatuak Europari begira daude.

Amaitzeko

Esandakoa laburbiltzean aldaketa nabarmenak aurkitu ditugu, Euskal Herriko lurraldea eta historia lantzeko izaerak guztiz aldatu baitira.

Euskal Herriko lurraldea gero eta hegemonikoagoa dela aurkitzen dugu: bertako mapa guztiek mende hasieran izaera soziokulturala erakusten zuten bitartean, mende amaieran ikuspegi hegemonikoaren ehuneko handitu egiten da, ia erdia eginez.

Euskal Herriko historiari begiratu gero, izaera soziokulturala oso modu urrian erabiltzen da, juridikoa eta nahasia sarriago. Antzinatea lantzeko eredurik gehienak kanpoko herrietatik hautatuak dira. Gure sasoiatik urrinen diren aro historikoak zehaztugabeak dira nagusiki, eta hurbilen daudenak zehatzak, estatalak. Historiaurrea zehaztugabea da, ez da lotzen Euskal Herriarekin: Ekain, Santimamiñe, Isturitz ez daude. Egotekotan Altamira. Zehazten diren aroak, ordea, modu estatalean zehazten dira, Estatu-nazioaren historiarenak. Historia Estatuarekin lotuta dator, batez ere gugandik hurbilen dauden aroetako Historia. (ikus 4. grafikoa).


Amaitzeko, ildo beretik doan joera azpimarratzen da testu liburuaren izaeraren garapenean: XX. mendeko amaierarako izaera soziokulturala gero eta urriagoa den bitartean, kanpoko herriekin egiten den lotura bezala, hegemonikoa, estatala gehi juridikoa, nagusitzen da. Testu liburuak gero eta zehatzagoak dira, beti Estatuaren alde.

Gure eskoletako curriculumean irakasten diren lurraldeak eta historiak nekez islatzen dute Euskal Herri soziokulturalaren errealitatea, hori Euskal Herria aipatzen denetan.

Europa zaharrean identitate politiko-ekonomiko berriak sortzen ari garen honetan, Euskal Herri zahar-moderno honetako haurrek nekez eraiki dezakete euren identitate soziokulturala eta europarra, curriculumean eduki horiek islatzen ez diren bitartean.



4. grafikoa



Euskal Herriko lurraldea zatikaturik aurkezten da testu liburuetan: gehienetan lurraldearen zati bat baino ez; edo Euskal Autonomia Erkidegoa, edo Nafarroako Foru Elkarte; bata ala bestea, inoiz ez elkarrekin, Espainiako mapa autonomikoan izan ezik. Frantziako kasuan, batzuetan, Hegoaldea aipatzen den arren, Iparraldeko lurraldeak ez dira agertzen. Frantzian ez dago Euskal Herririk.



Bibliografia

- BILBAO, B. (2002): *Kultura Erreferenteak Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumean*, Doktorego tesiak saila, UPV-EHU, Bilbo.
- EZKURDIA, G. (2004): *Identitatea*

- eta Ingurunea Curriculumean*, Doktorego tesiak saila, UPV-EHU, Bilbo.
- PEREZ URRAZA, K. (2003): *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan*, Doktorego tesiak saila, UPV-EHU, Bilbo.

Identitatea eta ingurunea
curriculumean

G

igor arroyo

**Euskal Herriak Bere Eskola
ekimeneko koordinatzailea**



Gero eta jende gehiagok du
hezkuntza ulertzeko ikusmolde
berria, eta ziur nago bide horretatik
adostasuna lortuko dugula.



**EHBEren
helburua dinamika
soziala edo herri
mugimendua
bultzatzea da,
horretarako
beharrezkoak
diren lanabesak
martxan jartzea.
Gure antolaketa
siplea da: alde
batetik herriz
herri ikaslez,
irakaslez eta
gurasoz osatutako
lan taldeak, eta
bestetik
koordinazio
batzarra**

Euskal hezkuntzako erakunde eta eragileen aurpegi ezagunen artean, gazteentakoa da Igor Arroyo inurrarena. Horregatik, beste askok zuzenean bizitutako garaiak ez zituen ezagutu berak, edo artean ume zen. Egoera horrek berak beste ikuspegi bat ematen dio gauzak aztertzeko, eta batez ere aurrera egiteko, etorkizunerako proposamen berriak planteatzeko. Izan ere, trapu eta kontu zaharren zainarik ez du.

Soziologian lizentziatua da, eta egun Historia ikasketak egiten dihardu. Inoiz ez da azterketak gainditzera mugatu. Azterketek baino buruko min eta kezka gehiago sortu izan diote irakasteko moduek, eskola ereduak edota euskararen egoerak. Eraldatzeko behar horrek bultzata hartu zuen parte Ikasle Abertzaleak-en eta bertako bozeramaile ere izan zen.

Orain EHBE Euskal Herriak Bere Eskola ekimeneko koordinatzailea da. Duela hiru urte sortutako egitasmo berri honen helburua euskal hezkuntza sistema propioaren bidean akuilu lana egitea da. Esaldi potolo horren azpian kontu asko biltzen dira, elkarriketak frogatzen duen bezala.

Duela 3 urte sortu zen EHBE Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimena. Zerk bultzata?

Euskal Herrian ikastetxe sare desberdinak daude eta baita erakundeak ere: Ikastolen Elkartea, Sortzen-Ikasbatuaz, EHIGE, Sarean, BIHE, sindikatua, ikasle erakundeak... eta bakoitzak bere esparrua, lana eta ildoak ditu. Hori ongi dago, baina hausnarketa bat egin ondoren, gabezia bat somatu genuen. Gu guztiok, ikasle, irakasle edo guraso izan, publikako zein kontzertatuko, Haur Hezkuntzako zein unibertsitateko, guztiok genuen oinarritzeko behar baten inguruan lan bateratua egiteko premia ikusi genuen.

Zein zen ikusten zenuten oinarritzeko behar hori?

Euskal Herrirako hezkuntza sistema propioa eskuratzea.

Egin genuen azterketaren ondoren, eragile bakoitzak bere funtzioa betetzen jarraitu behar zuela ikusi genuen, baina horrez gain, hezkuntza sistema propioaren aldeko dinamika soziala piztu behar zela. Garai batean hezkuntzan mugimendua egon zen, kalean egon zen, dinamika bizia egon zen, eta hori berreskuratzeko eta hezkuntza sistema propioaren bidean komunean izan ditzakegun oinarritzeko puntu batzuen inguruan herri dinamika sustatzeko beharra ikusi genuen.

Zer ekarpen egin dezake hor EHBEK?

Egoera horretan eraikin bat egin beharra dago. Eraikuntza horretan EHBEren lana beharginarena dela ikusten dugu. Gure lana inurri lana da; proposamenak egitea, jendearen kontzientzian aldaketak eragitea, hezkuntza ulertzeko eskema berriaren arabera aurrerapausoak ematea, jendea mugiaraztea, motibatzea, mobilizatzea, publiko-pribatu eztabaida gainditu eta denak batera lan egitea, irakasle-ikaslegurasoak ere elkarrekin aritzea...

Gero, hezkuntza eragileen artean egin beharko litzatekeen akordioan EHBE beste bat gehiago izango da. De-



na dela, hor izen eta izan handiagoko taldeak daude, pisu handiagoa dutenak: Ikastolen Elkarteak, sindikatuak, gurasoak... EHBE beste bat gehiago izango litzateke, baina gure lana azpitik egitekoa da, dinamika sozialari dagokiona.

Gaur egun dinamika soziala ahulduta dagoela esaten da behin eta berri. Ados al zaude horrekin?

Bai, hala da. Euskal Herrian hezkuntza esparruak beste garai batean zuen bizitasuna edo dinamismoa galdu egin du, kalean egotearen ikuspegia.

Euskal Herrian urrats pila bat eman ditugu hezkuntza sistema propioaren bidean, esperientzia oso aberatsak ditugu: helduen euskalduntze eta alfabetatze sarea, ikastolen mugimendua, eskola publikoan herriz herri eta auzoz auzo ireki dira euskarazko lerroak...

Lan asko egin da, baina azken urteotan nolabaiteko asimilazio bat egon da. Irakasleen artean egonkortasuna lortu da eta urteen poderioz hasierako grina galdu da. Gurasoen aldetik seme-alaben heziketaz horrenbeste ez arduratzeko joera dago eta ikastetxeetako parte-hartzea ez da hain handia zenbait kasutan. DBHren ezarpenarekin ere nolabaiteko umetzea gertatu da. Lehen 14-16 urteko gazteak aktiboak baldin baziren, gaur egun haurtzat hartzen dira.

Edonola ere, hori gizarte osoan islatzen da, ez hezkuntzan soilik.

Bai, egia da, gizarte osoan ikusten da hori. Azken finean, gizartearen ereduarekin bultzatu diren balioak, kontsumitzeko moldeak, aisialdi ereduak eta abar norabide bakar batean joan dira: gizarte ez horren konprometitua eta ez horren borrokalariaren norabidean. Eta horrek, ez bairik gabe, hezkuntzan bere eragina izan du.

EHBEn helburua hezkuntza sistema propioa sortzea da. Ez al da urrun samar edo ikusten den ideia?

Bai, horregatik, lehen erronka izan zen zehaztea zein ziren euskal hezkuntza sistema propioaren bidean funtsezko aldarrikapenak edo helburuak. Horrela, hurrengo hamarkadarako funtsezkoak diren bost ardatz zehaztu genituen.

Bata, haur eskola euskalduna, hezitzailea eta herritarra. 0-3 urte bitartean ematen ari den eztabaidaren harira.

Euskal curriculumak puzzle bat izan behar du, eta puzzle horretan pieza desberdinak daude. Horietako bat herri dinamika da, eta hori da EHBEn jarriko duena.

Puzlea ahalik eta parte-hartze handienarekin osatu behar da, eztabaida herritar baten bitartez. Bakoitzak bere egitasmoak eduki ditzake, baina guztiek batera euskal curriculum bateratua eraikitzen saiatu behar dugu



Euskal curriculumarekin bereiztu egin behar dira definizio unea eta ezarpen unea. Ez diogu begiratu behar estatuen legedian jartzen duenari. Guk geurea egin behar dugu, nola ikusten dugun Euskal Herria eta mundua eta horren arabera antolatu curriculumarekin. Beste gauza bat horren ezarpena izango da, hori nola egin aztertu beharko da. Baina bigarren eztabaidak ezin du lehenengoa mugatu

Bigarrena eskolak euskaldundu egin behar duela. Hau da, derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan gazte guztiek bermatua izan behar dute euskara ezagutzeko eskubidea. Beraz, euskaldun atera beharko lukete. Gaur egun Euskal Herrian % 62 ez da ateratzen euskaldun A, B edo G ereduari direlako ikasten. Oraindik lan asko dago egiteko.

Hirugarren helburua euskal curriculumarekin egitea da. Euskal Herri osorako baliagarri izango den erreferentzia pedagogikoa sortzea eta ikastetxeetan bultzatzea eta ezartzea.

Laugarren erronka lanbide eskolaren euskalduntzea da. Eredu horretan euskararen presentzia oso urria da.

Eta azkenik, euskal unibertsitatearen aldarrikapena. Ez aldarrikapen estrategiko edo sinboliko bezala, baizik eta hurrengo hamarkadan sortu beharreko unibertsitate konkretu bat bezala. Pentsatzen dugu beharrezkoa dela hurrengo hamarkadan unibertsitate euskalduna sortzea, Euskal Herri osorako lan egingo duena eta euskal kulturaren akuilu izango dena.

Behin bost ildo horiek finkatuta, horien inguruko dinamikak martxan jarrita ditugu.

Beharrak edo hutsuneak aipatu dituzu. Gauza positiborik aipa al dezakezu?



Bai, noski, dudarik gabe. Badaude elementu positiboak beste garai batzuekin konparatuta. Asko aurreratu da hezkuntza sistema propioaren erakuntzari begira beharrezkoak diren elementuetan eta egitasmoetan. Adibide bat curriculumarena da.

Urtetan hezkuntza sistema propioaren aldeko borroka euskararen borroka lotu zaio eta euskara aurrera joan da. Baina gero eta gehiago planteatzen ari da ez dela eskolak euskaraz ematea soilik, baizik eta edukiak Euskal Herriaren ikuspegitik landu behar direla.

Euskal curriculumaren beharren kontzientzia zabaldua dagoela uste al duzu?

Bai, oso zabaldua dago. Zentzu horretan, uste dut jendeak gero eta gehiago eskatzen duela. Beharra egon bada. Azken batean, LOGSEk edukiak definitzeko bere liburuak dituen bezala, guk ere behar ditugu gure planteamenduak eta curriculum propioa. Eta horrelakorik ez daukagu gaur egun. Badaude testugintzan egindako hainbat lan, irakasleen ekarpenak, ikastetxeetako proiektu oso interesgarriak... baina ez dago Euskal Herri osorako baliagarria izango litzatekeen erreferentzia pedagogiko hori.

Zein da curriculum propio hori eraikitze bidea?

Euskal curriculumarekin puzzle bat izan behar du, eta puzzle horretan pieza desberdinak daude. Horietako bat herri dinamika da, hau da, euskal curriculumarekin eraikitze gogoia eduki behar da, jendeak euskal curriculumarekin zer den jakin behar du, gaur egun dauden mugak salatu egin behar dira... Hori da puzzlearen pieza bat eta EHBerri jartzea dagokiona. Guk hori jarriko dugu.

Beste pieza bat Euskal Herriko kultura arloko adituek jarri behar dutena da. Beraien hausnarketa eta ekarpena egin behar dute, eta hori da ekainean Ikastolen Elkarteak aurkeztu zuena. 50 adituen iritzia biltzen da galdera baten inguruan: zer jakin beharko luke, zer abilezia eduki beharko litzuzke, zer balio jaso beharko litzuzke 16 urteko gazte

batek derrigorrezko ikasketak bukaturakoan?

Hurrengo pieza pedagogoen jarri beharrekoa izango litzateke, ikasgaika eta mailaka zer irakatsi beharko litzatekeen zehaztu beharko luketelarik.

Garbi dagoena da puzzle hori ahalik eta parte-hartze handienarekin osatu behar dela, eztabaida herritar baten bitartez. Ez da hezkuntza arloan soilik eztabaidatu behar, gizarte osoan baik. Izan ere, herri honetan zer-nolako pertsona ereduak hezi nahi ditugun ari gara aztertzen.

Egia da bakoitzak bere egitasmoak eduki ditzakeela eta bere ekarpen propioak egin ditzakeela, baina guztiok batera euskal curriculum bateratua eraikitzen saiatu beharko genuke.

Lan bateratu hori posible ikusten al duzu? Euskal curriculum bat baino gehiago sortzeko arriskurik ikusten al duzu?

Epe laburrean posible izango denaren konfiantza dut. Uste dut posible izango dela eragile eta sektore anitzen artean euskal curriculum eraikitzeko hezkuntza eztabaida bat eta eztabaida sozial bat irekitzea.

Ez ditugu euskal curriculum bat baino gehiago behar; bat behar dugu, eta gainera, desberdin egin behar dugu definizioaren unea eta ezarpenaren unean. Izan ere, euskal curriculum eraikitzerakoan egungo legedira egokitzekeko tentazioa egon liteke, hots, derrigorrezkoak diren estatuen curriculumetan nola txertatu beharko liratekeen pentsatzea. Hori da, hain zuzen ere, Gasteizko gobernuak egiten duena: derrigorrezko curriculumean euskal elementu batzuk txertatu. Eta elementu horiek zenbat eta gehiago izan, askoz hobeto. Hori pozgarria da.

Guk uste dugu, ordea, bi uneak desberdin egin behar direla. Euskal curriculum definitzerakoan ez diogu begiratu behar estatuen legedian jartzen duenari. Egin behar duguna da euskaldunok guk geuk geure erantzuna eman: guk nola ikusten ditugu Euskal Herria eta mundua; hori ebatzi, hori antolatu eta horrela eraiki curriculum.



Beste gauza bat da gero horren ezarpenaren unean datorren eztabaida. Derrigorrezkoak dira orain dauzkagun curriculumak; espainola Hegoaldean eta frantsesa Iparraldean. Beraz, nola egin behar diogu horri aurre? Batzuk ausartagoak izan litezke desobediencia jarreretan, beste batzuk zalantza gehiago izan ditzakete. Hor dago selektibitatea, hor dago baxoa... Ikusi egin behar da nola egin aurre horri. Baina bigarren eztabaidak ezin du lehenengo mugatu. Eusko Jaurlaritzak hori egiten du; bigarrenaren arabera baldintzatzen du lehenengo. Ikastolen Elkarteak ekainean aurkeztutako proposamenak, aldiz, definizioa egiten du, ezarpenarekin nahastu gabe, eta zentzu horretan positiboa da. Baliagarria da, ekarpen bat da.

Nola doa "Eskolak euskaldundu behar du" kanpaina?

Ongi doa. Euskalgintzako eragileekin batera ari gara egiten arrazoi batek bultzata: egungo argazkia oso kezagarria da, nahiz eta nolabaiteko normaltasuna hedatua dagoen. Badirudi normalkuntza prozesua bide onetik doala, D eredu igotzen ari dela eta abar. Nolabaiteko baretze bat dago. Zentzu horretan, guk dinamika honekin tentsioa berreskuratu nahi dugu, egoerak hala eskatzen duelako. Izan ere, orain bezala jarraitzen badugu, hurrengo 20 urtetan ikasleen % 62 erdalduna izango da. Horrek esan nahi du gure herrian euskalduntze prozesua beste 20 urtez atzeratuko dela, baldin

eta gaur egun hezkuntza sisteman dauden ikasleen % 62 ez bada euskalduntzen. Beraz, egiturazko aldaketa bat behar da horren inguruan.

Gainontzek ardatzetan zer egin da orain arte?

Gure indarrak mugatuak dira eta lehenetasuna herri bakoitzak nahi duen ildoa jorratzeari eman diogu. Herri bakoitzak bere egoeraren arabera hautatzen du zein ardatz landu nahi duen. Esate baterako, Oreretan lanbide eskolaren gaia ari dira lantzen, Donostiako Egia auzoan haur eskolarena, Leitza euskal curriculum.

Horrez gain, maila nazionalean ildo horietako bakoitzari lotutako dinamikak lantzen ari gara. Euskal curriculumaren inguruan hainbat lan egin ditugu ezagutarazteko hori zer den, zergatik behar dugun, zertarako... eta horren guztiaren aurrean kontzientzia hartzeko. Tailerrak ere egin ditugu ikastetxetan, eta Euskal Herriko mapa historikoa argitaratu ere bai. Euskal unibertsitatearen inguruan lanketa berezia egin dugu, gai hori gizarteratu gabe baitago oraindik. Sinadura bilketa erraldoi bat egin genuen, ekitaldi bat Oñatin, beste bat Andoingo Martin Ugalde kultur parkean eta orain ekimen berriak antolatzen ari gara.

Kanpaina batekin eta bestearekin hezkuntza sistema propioaren bidean urrats berriak emateko gogoia elikatzen saiatzen ari gara. Lehen aipatu ditugun bost ardatzak gai ordenean jartzen saiatzen ari gara.

Ikasgai bat
gainditzeko daukagu
eta behar ia-ia
historiko bat
daukagu: ea gai
garen herri honek
hezkuntza sistema
propioa izan behar
duela sinesten dugun
guztion artean
oinarrizko adostasun
bat eskuratu eta
marko komun bat
definitzeko

Nolako egitura eta antolaketa du EHBek?

EHBEn helburua dinamika soziala edo herri mugimendua bultzatzea dela esan dut. Horretarako beharrezkoak diren lanabesak martxan jartzea da gure egitekoa. Hori ikusita, gure antolaketa sinplea da. Alde batetik herriz herri ikaslez, irakaslez eta gurasoz osatutako lan taldeak daude herri dinamika bultzatzeko. Eta bestetik herri guztien arteko bilgunea osatzen duen koordinazio batzarra dago. Funtsean oso egituraketa sinplea du. Xedea da dinamika sozial horiek lantzea eta horretarako beharrezkoak diren puntuak martxan jartzea.

Nolako da herriz herriko lan talde horien egoera? Asko sortu al dira? Nolako dinamika dute?

Egia esan, oso egitasmo zaila eta konplexua da eskuartean daukaguna. Alde batetik, mugimendua ez delako beste garai batzuetan bezain bizia eta horrek eragina du. Normalean jadanik lanean dabilen jendea lanpetuta dago eta parte hartzeko zailtasunak ditu. Eta lanean ez dagoena lanean jartzea kosta egiten da. Beste aldetik, irakasleak, ikasleak eta gurasoak mahai eta dinamika beraren inguruan eserraraztea oso zaila da, bakoitzak bere estiloa eta



ikuspegia baititu.

Horren jakitun izanik, bagenekien ez zela urtebeteko edo hiru urteko egitasmoa gurea. Gure ikuspegia epe luzekoa da. Egun hezkuntzan dauden joera sozialei buelta eman nahi diegu eta beste joera batzuk bultzatu. Eta horretarako urte asko behar dira.

Nahiz eta lan taldeak martxan jartzea oso zaila izan, esperientzia oso politak ari dira sortzen. Taldea martxan jartzea lortzen den tokietan eta funtzionatzea lortzen den tokietan oso aberatsa da diskurtsoa eraberritu egiten delako, ikuspegia ere bai, jendeak gauzak ikusteko beste molde bat hartzen duelako... Jada ez da nik irakasle bezala nire ikastetxean egiten dudana, eztabaida ez da publikoa edo ikastola... Eztabaida herri bezala egiten da eta kale mailan lantzen da zer-nolako hezkuntza nahi dugun Euskal Herrirako.

Zein urrats eman behar ditu EHBEn edo lan taldeetan parte hartu nahi duenak?

Bi modu daude EHBEn parte hartzeko. Bata herrietan dauden lan taldeetan parte hartzea. Era berean, herri batean horrelako lan talde bat sortzeko interesa baldin badago, EHBeko koordinazioarekin harremanetan jarrita, lagundu egingo diegu taldea sortzen eta EHBEn dinamikan sartzen.

Bigarren bidea hezkide izatea da: hezkuntzako kide, hezkuntza mugimenduko kide. Lan talde batean iraunkorki egon ezin duenak baina ekarpenak egin nahi dituenak, edo bere ikastetxean zerbait egin nahi duenak baina herri horretakoa ez denean eta herritarrekin harremanik ez duenean, edo beste hainbat kasutan, hezkidea izateko aukera dago. Hezkidea EHBEn laguntzailea da. Koordinazio taldeak hezkide guztiei informazioa bidaltzen die eta dinamiketan parte hartzek aukera ematen zaie. Beren iritziak eta ekarpenak jasotzen ditugu. Hezkideak taldeak dauden herrietan edo ez dauden herrietan egon litezke. Orain hezkideak egiteko kanpaina bultzatzen ari gara.

Familia eredu askotarikoak eskolan

Familia ereduak lantzeko materiala

Elkar argitaletxeak bi ipuin liburu berri argitaratu ditu (*Pirritx eta Porrotx arrantzan eta Pirritx eta Porrotx herriko postariak*), eta biak gai nagusi bat lantzen dute: familia aniztasuna. Gure inguruan gero eta familia mota gehiago dauzkagu, eta hori eskolan lantzeko beharra ikusi dute ipuin hauek egiteko ideia izan zuten taldeek: BEROA Gipuzkoako Harrera Familien Elkarteak, UME ALAIA Adopzioarako Laguntza Elkarteak, GEHITU Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Elkarteak, AGIPASE Gipuzkoako Guraso Bananduen Elkarteak eta Katxiporrera Pailazo Taldeak.

Eskolan familia eredu anitzak lantzeko beharra ikusirik, egokia iruditu zitzaion ipuinen bidez lantzea. Hasteko, bi ipuin argitaratu dira, baina gehiago ere etorriko dira, hurrengo bi urteetan zehar osatuz joango baita bilduma. Lehenengo biek adopzioaren eta harrera familien gaia lantzen dute. Datorren urtean gay eta lesbianen familiak eta banatutako gurasoenak landuko dituzten ipuinak kaleratuko dira. Eta 2006an gurasobakarreko familiak eta etorkinen familiak hartuko dira ardatz.

Elkarte horien laguntza denontzat

Gaur egun familiaren aniztasuna lantzeko material pedagogikorik ez dago. Irakasleek beraien kabuz bilatu behar dute materiala baldin eta gaia ganozlandu nahi badute egungo errealitate soziala ikusita.


Ahalegin horretan lagundu nahi dute BEROA, UME ALAIA, GEHITU eta AGIPASE elkarteek, eta material xume bat prestatu dute denen artean, hurrengo orrialdeetan irakur daitekeena, hain zuzen.

Horrez gain, elkarte horien ateari irekita daude edozein kontsulta egiteko edota informazioa emateko. Hona hemen beraiekin harremanetan jartzeko bideak:

UME ALAIA
Adopzioarako Laguntza Elkarteak
Gipuzkoan
Tel.: 943 113 693 - 655 726 911
E-posta: umealaiagi@euskalnet.net

Bizkaian
Tel.: 656 797 063
umealaia@canal21.com

BEROA
Gipuzkoako Harrera Familien Elkarteak
Tel/faxa: 943 482 594
E-posta:
asociacionberoa@hotmail.com



GEHITU
Euskal Herriko Gay eta Lesbianen
Elkarteak
Tel/faxa: 943 468 516
E-posta: info@gehitu.net

AGIPASE
Gipuzkoako Guraso Bananduen
Elkarteak
Tel/faxa: 943 482 614
E-posta: agipase@euskalnet.net

Sarrera

Agiri hau sinatzen dugun erakundeok —AGIPASE (Gipuzkoako Guraso Bananduen Elkarte), UME ALAIA (Adopzioarako Laguntza Elkarte), BEROA (Gipuzkoako Harrerako Familien Elkarte) eta Gehitu (Euskal Herriko gay eta lesbianen elkarte)— berau idatzi beharra sentitu dugu, eskoletan umedun familien kontua lantzen denean erabiltzen den metodologia aldatzen laguntzeko. Metodologia horrek guztiok inguratzen gaituen gizarte errealitatea islatu beharko luke eta ez litzateke soilik familia eredu tradizional bakar batean oinarritu behar, gaur egun eredu horrekin batera beste familia eredu alternatibo eta desberdin batzuek ere badaudelako. Sortzen ari diren familia eredu edo bizikidetasun egoera berri horiek ezagutu eta onartu egin behar dira, familia horien barnean bizi diren adingabeek onespenez eza edota porrota sufri ez dezaten beren errealitatearekin oso antz txikia edo antzik ez duen familia errealitate bat planteatzen zaienean.

Duelazentzat urte famulietan ezkontza gunea nahiko egonkorra zen eta ezkontideen artean paperen banaketa osagarri bat eginez osatzen zen gunehori. Ereduhori, ordea, aldatzen ari da, hainbat arrazoigatik: behin-behineko lana, etengabeko prestakuntza, emakumea lan munduan sartzea eta lana eta amatasuna bateratzeko zailtasuna... Bikoteko kide bakoitzak lan ordaindua izateak aukera ematen du berdintasunean —ez menpekotasunean— oinarritutako harreman bat izate-

ko beharrezkoa den independentzia ekonomikoa izatea.

Etengabe aldatzen ari den munduhonetan, bizigaren munduhonetan, ez da ezer behin betiko, ez dakigu ziurtasun osoz zein ibilbidetik jo, eta familia unitatea hausteko arriskua ere etengabekoa da; bikoteen arteko gatazken ondorioz bikoteak banandu eta dibortziatu egiten dira, guraso bakarrekofamilien kopurua hazi egin da eta etxe egitura berriro osatzen damaiz. Aldi berean, ugalkortasuna txikiagoa da, eta emakumea hobeto prestatuta dagoenez eta lan munduan sartu denez edota antisorgailuen erabilera orokortu denez, jaiotza tasa jaitsi egin da. Horren guztiaren ondorioz, amatasun adina atzeratu egin da eta abandonatutako haurren kopurua ere murriztu egin da. Horixe da nazioarteko adopzioak gora eta estatu mailakoak behera egiteko arrazoa. Aldiz, garapen bidean dauden herrialdeetan abandonatutako umeen kopuruak gora egin du, munduan hainbat herrialdeetan gertatutako aldaketa ekonomikoen, gerren, etnien arteko gatazken eta natur hondamendien ondorioz.

Pertsona ezkongabeek ez diote uko egin ama edo aita izateari eta, ondorioz, guraso bakarrekofamilien kopurua hazi egin da.

Bikote homosexualak onar dituzten exijitzen dute, eta baita beren egoera bikote heterosexualekin parekatzea ere.

Etorकिन kopurua handitu egin da, begi aurrean ditugun bi munduen arteko desberdintasun ekonomikoen ondorioz.

Geletan biltzen diren umeak bizikidetasun errealitate askotariko horren fruitu dira eta, etxe bakarrean bizi diren aita, ama eta seme-alabek osatutako familia nuklear tradizionalerako umeekin batera, gutxi-asko berriagoak diren familia ereduak gero eta usuago aurkitu ditugu gela horietan:

- Aita edo ama, seme-alabekin (adoptatuak, familia harreran daudenak, ama biologiko ezkongabea dutenak, lagundutako ugalketa tekniken

bidez izandakoak, bikotea banandu delako edota bikoteko kideetariko bat hil delako aitarekin edo amarekin bizi direnak).

- Harrera egoeran adingabeak dituzten bikoteak, behin-behineko izaeraz jatorrizko familiarengandik bananduta dauden adingabeak dituztenak.

- Estatuan bertan edo nazioartean adoptatutako seme-alabak dituzten bikoteak, baita beste etnia edo arraza batzuetako umeak dituztenak ere; edota seme edo alaba biologikoak eta adoptatutakoak dituztenak etab.

- Seme-alabak dituzten bikote homosexualak (seme-alabak banakako adopzio bidez, harreraren bidez, aurreko harreman heterosexualen ondorioz edota lagundutako ugaltze tekniken bidez dituztenak).

- Banandutako bikoteko kide batek berriro eratutako familia, aurreko harremanen ondorioz seme-alabak dituenen.

- Beste kultura eta familia erreferentzia batzuetatik datozen etorkinen familiak.

Gure gizarteetan aldaketa horiek guztiak gertatu badira ere, eskolan familia lantzeko orduan eredu bakartzat familia nuklearra hartzen da, eta zaharkituta gelditu den eta neurri batean baztertzaila den ikasmateriala erabiltzen da, gure ingurunea islatzen ez duena. Ume asko kanpoan uzten ditu, eta ondorioz, ume askok beren burua non kokatu ez jakiteko arriskua dute, behin baino gehiagotan egiaztatu ahal izan denez. Horrek guztiak segurtasun eza eta leialtasun gatazkek sortarazten ditu eta gainerako ikaskideekiko desberdin sentitzen dira.

Horregatik, Hasieran azaldutako elkarteetakook familia lantzeko orduan ikuspegi aldaketa bat eskatzen dugu, gure ikasgeletako haurrak ezaguri zehatz batzuk dituzten famulietako kide direlako lotsa ez daitezen eta familia eredu desberdinak gure gizarteaberasten duten elementutzat har ditzaten, gizarte hau etengabe aldatzen ari den gizarte baita.



Adingabeekin familia gaia lantzeko jarraibideak

- Familia eredu guztiak baliagarri direla azpimarratzea, eredurik baztertu gabe.
- Ez daude hobeak edo okerragoak diren familia ereduak, desberdinak dira, besterik gabe, familiarterko loturak ez baitagozkie odolari, sentimenduei baizik.
- Bi familiatako kide izan zaitezkeela ulertzea: familia biologikokoa eta harrera familiakoa, banaketa prozesu baten ondoren osatutako familia batekoa...
- Bizitzan egoera zailei aurre egin behar izan dietelako haurrak gehiegi ez babestea.
- Haurren jaiotzari eta lehen urteei buruzko galderak ez egitea, batzuetan garai horri buruzko informaziorik ez dutenez datu-rik ezin eman dutelako; adibidez, jaiotzearen pisua eta altuera, haurtxoa zen garaiko argazkiak etab.
- Familia egoera eta egoera pertsona azaltzeko espazioak eta uneak eskaintzea ikasleari, errealitate hori edozein delarik ere.
- Adingabearen jatorrizko familiar buruzko iritzi negatiboak saihestea, leialtasun gatazkak eragin baitiezazkie horrek eta hazkuntzan eragin negatiboa izan baitezake.
- Adingabeek azal ditzaketan krisialdian ulertzen diren iritziak izatea eta harrera familiar aholkua eskatzea horrelakoak gainditzeko. Uzkur eta gogogabe nahiz oldartsu eta urduri ager daitezke.
- Adingabe hauek eskolako zereginetan kontzentratzeko dituzten zailtasunen aurrean ulertzen diren iritziak izatea, bizi diren familia egoera kontuan hartuta (galderak, lotura berriak sortzea etab.). Ikasketa maila baxuagoa erakuts dezakete, egoera berrira moldatzeko behar izan duten indarra handia izan baita.
- Moldatze prozesuaren hasierako aldi irakasleak harreman berriak zaindu eta sustatu beharko ditu, lehenengo fase horretan arreta batez ere harremanetan jarritik, eta ez horrenbeste ikasketen emaitzetan. Komenigarria izan daiteke fase horretan haur horri laguntzeko ikaskide bat esleitzea, gauzak azal diezazkion eta lagun diezaion.
- Iristen den haurra horren txikia ez denean, atzeratik datorrenean edo ikasketetako hizkuntzarekin harremanetan egon ez denean, hizkuntza bati emango zaio lehentasuna besteen gainetik.
- Ikasketetako eta gurasoen artean etengabeko harremanak izatea komeni da, ikaslearen bilakaeraren jarraipena ondo egingeko eta, beharrezkoa bada, eskolaz kanpoko jarduerekin edo jarduera psikologikoekin laguntzeko.
- Haurra ez da inoiz gurasoak banatzearen errudun, eta ez da errudun sentiaraziko; ezta ondorio adingabe baten adopzioa edo harrera duen egoera baten errudun ere.
- Adingabeen beren familiar buruz, datozen herrialderi buruz (beste herrialde batekoak badira) eta horrelakoei buruz lagunei datuak azaltzeko uneak eta espazioak eskainiko zaizkie.

Zer da adopzioa?

Adopzioa haurrak babesteko neurri bat da, jatorrizko familiarik gabe gelditu diren umei (umezurtz edo behin betiko abandonatuta gelditu direlako) familia berri bat aurkitzeko aukera ematen diena. Adaptatutako semeak edo alabak seme edo alaba biologiko baten eskubide eta betebeharrak bereganatuko ditu eta egoera berean kokatuko da. Adopzioaren helburuetariko bat haur batentzat egokia den familia bilatzea da (eta ez familia baten nahien araberrako ume bat aurkitzea).

Adoptatzeko baldintzak:

Estatu espainiarrean haur bat honako egoeretan soilik adopta daitezke:

- 1.- Filiazioa ezezaguna denean.
- 2.- Gurasoen adopzioarako onespina ematen dutenean.
- 3.- Aita-amei epailearen aginduz gu-

raso agintea kendu zaienean edota aginte hori kentzeko bidean daudenean.

Estatu barneko adopzioa

Adopzio gurasoen eta adoptatuko den umeak nazionalitate bera dutenean eta herrialde berean bizi direnean egiten den adopzioa da.

Nazioarteko adopzioa

Bi mota bereizten dira:

A. Adoptatuko den umeak ohiko bizitoki duen herrialdeetatik irten behar du, adopzio gurasoen nazionalitatea edozein izanik ere (beste herrialde bateko adopzioa).

B. Adopzio gurasoen eta adoptatuko duten umeak nazionalitate desberdina dute, umearen herrialdean bertan bizi diren edo ez kontuan hartu gabe (nazioarteko adopzioa, zentzu herztian).

Hagako Hitzarmenak bereizketak

hori egiten du eta tresna honen aplikazioa haurra beste herrialde batera eraman behar denean egiten den adopzioa mugatzen du.

Baliozkoa den edozein adopzio motatan **bi fase** bereizten dira:

- 1.- Administratiboa.
- 2.- Judiziala.

Nazioarteko adopzioan kontuan hartu behar da bi herrialdeen barne zuzenbidea, hau da, adoptatukoaren jatorrizko herrialdekoa eta adopzio gurasoen.

Adingabearen jatorrizko herrialdeko legearen arabera, hau jada Adopzio Auto batekin etor daitezke, edota beste kasu batzuetan adoptatu aurreko tutoretzarekin etorriko dira. Gure herrialde-ira iristen direnean eta gure legeen arabera, tutoreak edo adopzio gurasoak arduratuko dira dagokion komunitateko auzitegietan Adopzio Autoa eska-

tzeaz, eta ondoren Erregistro Zibilean eta Familia Liburuan inskribatzera joko da; orduan adopzio gurasoen abizenak ezarriko zaizkio.

Zer da familia harrera?

Definizioz, familia harrera haurrei epe jakin batean bere berezko familiak ondo zaindu ezin duenean, berezko familia horren ordezkio edo osagarri modura familia arreta eskaintzeko erabiltzen den baliabide bat da.

Hainbat egoeratan beren familiarekin bizi ezin duten haurrei eta nerabeei zuzentzen zaien baliabide bat da familia harrera, eta horregatik, ezin da inoiz adopzioarekin nahastu.

Egiaz ez dago harrera egiteko pertsona eredu bat edo familia eredu bat. Hasiera batean, edozein izan daiteke harrera egiteko gai, nahiz eta ezin duen edozeinek edozein haur hartu. Dena den, ezin dugu ahaztu harrera egiteko beharrezkoa dela aurrez prestatzea.

Harreraren helburua:

- Soila: aldi baterako izaera du, bai adingabearen egoera ikusita berriro gero bere familiarekin biziko dela uste delako, bai izaera finkoagoko babes neurri bat hartzen den bitarteko aldiari dagokiolako.

- Iraunkorra: adingabearen adinak eta honen edo familiaren beste zeaugarri batzuek horrela egitea eskatzen dutenean eta adingabeentzako arreta zerbitzuei horren berri eman ondoren.

-Adoptatu aurrekoa: erakunde publikoak bideratuko du, adingabearen adopzio proposamena agintaritzaz judizialari helarazten dionean.

Harrera familiaren izaera:

-Norberaren familian hartzea: adingabea familia biologikoko kide baten tutoretzapean gelditzen denean (osaba-izebak, aitona-amonak...).

-Besteren familian hartzea: zaintza familia biologikotik kanpoko beste familia baten esku gelditzen denean.

Harreraren izaera:

-Administratiboa: familia biologikoa adingabearen harrera prozesua hastearekin ados dagoenean.

-Judiziala: familia biologikoa bere seme-alabak beste familia batean hartzea planteatzearekin ados ez dagoenean eta babes neurri hau hartzeko erabakia epaileak hartzen duenean.

Zer dira banandutako gurasoen familiak?

Beren bizimodua bananduta, aparteko etxeetan, egitea erabakitzen duten gurasoen familiak dira. Horregatik, haurrek aitarekin eta amarekin bizi beharko dute, baina etxebizitza desberdinetan. Adingabeek ahalik eta gutxien sufritzeko moduan bideratuko da. Bien arteko zaintzaren bidez batarekin edo bestearekin denbora berdina pasa dezake, edota zaintza guraso batek izan dezake bere gain eta besteak bisiten erregimen zabala izan dezake, maitasun harremanei eta loturei eusteko. Adingabeak direnez eta beren kabuz erabaki ezin dutenez, gurasoak elkarrekin ados ez badaude, epaitegietan lan egiten duen profesionalen talde batek erabakiko du zein gurasorekin biziko den adingabea; psikologo batek, gizarte langile batek eta abokatu batek osatzen dute taldea.

Gerta daiteke banandutako familia batetik **berriro eratutako familia** bat sortzea. Familia mota hauetan, guraso-atariko batek edo biek beste bikotekide bat aurkituko dute eta bikotekide berri horrekin etxe berean bizitzen jartzea erabaki dezakete; gerta daiteke, gainera, aitaren edo amaren kide berriak osatu berri den familia horretara seme-alabak ekartzea, edota berriro eratutako familia horren barnean ume gehiago izatea eta, beraz, neba-arreba berriekin topo egitea.

Familia homoparentalak

Bi gizonen edo bi emakumeen osaturiko familiei deitzen zaie familia homoparentalak.

Azken eredu hau ez da apenas ezagutzen, ezkutuan dago, ez du onarpen sozialik, estatistika ofizialetan ere ez da ageri. Nola izendatu ere ozta-ozta jakiten da. Soilik zenbait alor akademikotan, gutxitan nolahi ere, eta gayen eta lesbianen eremuetan hasi da zabaltzen.

Hala ere, era honetako familiak existitu existitzen dira. Lesbianek intseminazio artifiziala baliatzen dute, edo norbanaka seme-alabak adopta ditzakete. Baita aurretiko erlaziotik izandako seme-alabekin osatu ere familia.

Errealitate horrek gizarteari hainbat galdera planteatzen dizkio eta, beraz, erantzun berriak ematea eskatzen du. Dударik gabe, kezka handiena sortzen duena hau da: zein eragin duen haurren garapenean familia homoparentaletan hazi eta hezteak.

Zalantza horiek zenbait herrialdeetan (AEBn, Erresuma Batuan, Kanadan, Suedian, Belgikan) egindako ikerketek argitzen dituzte. Espainiako Estatuan bada ikerketa bat, Sevillako Unibertsitateak eta Madrilgo Psikologoaren Elkargoak egina. Denek honako hau ondorioztatzen dute: gay eta lesbianek autoestimua handia dutela, eta beraz, guraso izateko gai direla. Euren seme-alabek ez dutela alderik familia eredu tradizionala hazitako haurrekin, garapen psikologikoari eta intelektualari dago kienez; nortasun garapena berdina dela; ikaskideekiko eta lagunekiko erlazioak berdinak direla; eta azkenik, gurasoen orientazio sexualak ez duela eraginik seme-alaben orientazioan.

Ikerketak bi diferentzia soilik nabarmentzen ditu: batetik, gay eta lesbianen haurrek hobeto onartzen dutela homosexualitatea; eta bestetik, genero rola malguagoak dituztela.

Hezkuntza arloak aurrean erronka garrantzitsua du: aniztasunean hezteko, alegia, heziketa irekia eta adeitsua eskaintzea afektibitate eta sexualitatea bizitzeko era guztiekiko. Helburua homosexualitatea naturaltasunez bizitzen irakastea da.

Egoera honek, halaber, eskatzen du hezitzaileak aniztasun balioez jabetzea gero haurrei helarazteko. Eskola barruan jartzen diren adibideak ez daitezela izan beti aita-ama. Ama-ama, aita-aita ereduak ere erabil daitezela, dagoeneko badirelako.

Horrek guztiak ekarriko du haurrek ezberdintasunarekiko begirunean hezteko, eta denok irabaziko dugu, ez guraso homosexualak dituzten haurrek bakarrik.

Gizarte mailan hainbat mobilizazio eta manifestazio egin dira azken urteetan hezkuntzako eragileen artean: "Guk geure eskola", "Hezkuntza geurea eta solidarioa". Ez al zaizu iruditzen kanpoko erasoen aurrean bazen garelako horrelako gauzak egiteko, baina gero bakoitzak bere bidetik jarraitzen duela?

Nik uste dut ikasgai bat gainditzeke daukagula eta behar ia-ia historiko bat daukagula: ea gai garen herri honek hezkuntza sistema propioa izan behar duela sinesten dugun guztion artean oinarritzko adostasun bat eskuratu eta marko komun bat definitzeko.

Lortuko dela uste al duzu?

Posible ikusten dut. Gehiago esango nuke, egin, egingo da, goiz edo berandu. Ez dakidana da noren artean egingo den. Onena litzateke ahalik eta jende gehienak parte hartzea horrelako adostasun marko komun batean.

Baina gertatzen dena da gaur egun oraindik beste batzuk sortu eta sartu dizkiguten eztabaiden eta faktoreen menpe bizi garelako. Adibidez, publiko-pribatu dikotomia, funtzionaritzaren ereduak, publikotasuna ulertzeko modua... Horiek guztiak dira beste batzuek, ezguk, ez Euskal Herrian, ez euskal hezkuntza komunitatean, baizik eta espainiar eta frantziar estatuetatik eta Hegoaldean dauden bi hezkuntza administrazioetatik sartu dizkiguten eztabaidak, faktoreak, eta neurri batean, golak.

Oraindik orain menpekotasun ideologiko eta politiko handia dago faktore, ideia eta eztabaida horiekiko. Horrela, gaur egun sindikalgintzan bada funtzionario sistema berrikusteko prestez dagoen jendea, edo irakasle eta gurasoen artean publikotasun eredu berrikusteko prest ez dagoena.

Dena dela, nik uste dut gero eta gehiago garelako faktore horien menpe ez gaudenak. Niri berdin zait espainiar funtzionario legeak zer esaten duten, edo 93ko Euskal Eskola Publikoaren Legeak zer aipatzen duen. Nik herri honetan sinesten dut, herri honek hez-

kuntza sistema propioa behar duela, eta horren arabera jokatzeko.

Azken finean, hezkuntza ulertzeko bi ikusmoldeen arteko talka gertatzen da. Batetik ikusmolde zaharra daukagu, hezkuntzan indar handia duena. Lurralde zatiketaren arabera ikusten da dena: Baskongadak alde batetik, Nafarroa bestetik eta Iparralde bestetik. Beti administrazioari begira. Eztabaida nagusia publikoa *versus* pribatua da. Beste aldetik eskema berria dago, Euskal Herri osotik abiatzen dena. Leitzan akaso posible izango dute euskal curriculum ezartzea eta Barakaldon agian ez, baina ez da lurralde zatiketaren arabera ezintasuna izango, baizik eta tokian tokiko baldintzen arabera. Eskema berriak herritartasuna bultzatzen du, publikotasun eredu berri baterantz doa: publikotasun eredu herritarra. Euskal Herriaren arabera definitutako publikotasun eredu bat, eta ez frantziar edo espainiar legediaren arabera definitutakoa.

Eskema berriak aurrera egiten duen neurrian, ziur nago hainbat jenderen artean lortuko dela adostasun bat. Kontua da inork ez dakiela eskema zaharrekin funtzionatzen dutenei zenbat kostako zaien eskema berrira pasatzea, ea igarotzeko prest dauden, eta prest ez baldin badaude zergatik, eta ea zenbat pertsona eta eragile kokatuko garen eskema berrian. Gaur egun ekimen eta proposamen aberatsak eta berritzaileak ari dira sortzen eta sinetsita nago eskema berriak aurrera egingo duela.

Eskema berri horren aurrean, nola ikusten duzu instituzioen papera?

Kontziente izan behar dugu hezkuntza sistema propioaren aldeko motore herri mugimendua izan dela, beste hainbat proiektutan bezala. Horren aurrean, gaur egungo instituzio autonomikoak laguntzaile edo oztapatzaile izan litezke. Guk laguntzaile izan daitezkeen nahiko genuke, eta beraz, herri mugimendutik sortzen ari diren ekimenak lagun ditzaten, Madrilgo Gobernutik datozen inposaketei aurre eginez.

Zoritxarrez praktikan ez dugu ho-



relakorik ikusten. Nafarroako Gobernuaren jarrera oso argia da: euskararen eta euskal nortasunaren kontrakoa. Hori hezkuntzan bere isla izaten ari da: testu liburuen inguruko fiskalizazioa hasi da, D ereduko ikastetxeek izugarritzko arazoak dituzte...

Baskongadetako administrazioari dagokionez, funtsean diskurtso soberanista bat elikatzen du, baina ez dio aurrera egiten benetan dagoen egoerari, ez ditu zalantzan jartzen Espainiako Ministeriotik ezartzen diren ildoak.

Lehen esan bezala, berrikuntza hezkuntza eragileen aldetik etorriko da, aipatu dudako eskema berri horretatik eta Euskal Herri osorako hezkuntza planteamendu bat egiteko norabide horretan. Nazio Eztabaidagunea planteatzen ari den testuinguru horretan sor litezke berrikuntzak edo aldaketak. Administrazioa ez dut ikusten ezer lideratzen. Hori bai, hezkuntza komunitateko eragileen artean aurrerapausoak ematea lortzen baldin bada, ikusi egin beharko da administrazioek zer jarrera hartzen duten. Espero dezagun atzetik etortzea eta gure hezkuntza sistema propiorantz erakartzea. Azken batean, beraien diskurtsoa elikatze beharrezkoa dute herri mugimenduak planteatzen dituen erronken aurrean zerbait egitea eta pixka bat mugitzea. Nik uste dut, zentzu horretan, mugi litezkeela. Baina aitzindaritzaz ez da handik etorriko, ez dute horretarako boka-ziorik edo intenziorik.



Kuadrillategi egitasmoa

Koadriletan euskara erabiltzeko saiakeraren emaitzak



Diego EGIZABAL

Kuadrillategi egitasmoaren koordinatzailea

Lagunartean edo koadriletan euskararen erabilera sustatzeko helburuz, hainbat udalerrian bi ikasturtez luzatu den esku-hartzea eta ikerketa dugu Kuadrillategi Egitasmoa. 2001-2002 ikasturtean, esaterako, zortzi udalerri abiarazi zuten Kuadrillategi: Lasarte-Oriak, Añabainek, Umietak, Beasainek, Debak, Bergarak eta Aretxabaletak. Urtebete geroago beste hiru herririk: Atarrabiak, Uhartek eta Burlatak. Esku-hartzearen sustatzaileak hiru izan dira: tokian tokiko Euskara Zerbitzua eta Euskara Elkarteak batetik; eta bestetik, Kuadrillategi Ikerketa eta Aholkularitza elkarteak. Azken hori orain hiruzpalau urte sortu bazen ere, bertan dihardutenek, hala

nola, Pello Jauregi doktoreak, urte asko daramatzate esku-hartzearen euskarri den marko teorikoaren eta metodologikoaren inguruan iker-tzen. Kuadrillategi egitasmoaren ibilbidea luzea da benetan, hainbat urte igaro baitira lehen aldiz Pello Jauregik koadrila bat hartu eta haren euskalduntzeari heldu zionetik. Irakurleak orain esku artean erabili-ko dituen emaitzak eta datuak, berriaz, 2001eko irailetik 2003ko ekainera bitartean arestian zerrendatu ditugun udalerrietan burutu zen ikerketari dagozkio.

Marko teorikoa

Koadriletako kideen arteko harremanak hobetzen direlakoan, taldeak makina bat arau adostu eta ezartzen ditu. Arauok *aitortuak* zein *aitortu gabek* izan daitezke. Lehenengoak jakinaren gainean betetzen dira, eta bigarrenak, aldiz, oharkabean. Taldean jarraitzearen kide guztiak bete behar dituzte arauak. Kideren batek arauaren bat betetzen ez duenean taldea desorekatu egiten da. Taldea, noski, ahalik eta denborarik laburrenean saiatuko da oreka berreskuratzen: a) indarrean zegoen araua aldarrikatuz, edo b) araua apurtu duen jokaera berriaren alde jokatzuz, hori ere egokia delakoan kideen arteko harremanak kudeatzeko.

Prozesu hori, dena den, ez da gertatzen talde batzara deituta edota bozka emanez, jokaera berriaren aurrean modu jakin batean jokatzuz baizik, hau da, jokaera berria burutu duen laguna baztertuz, joz, zigortuz, haren kontura barre eginez, harekin haserretuz, hitza ukatuz eta abar. Jokaera berriaren aurrean, dena den, ez dute kide guztiak zertan berdin jokatu. Izango dira jokaera arbuiatzen dutenak, baina izango dira jokaera berria gorai patzen dutenak ere. Lehia handia izan daiteke kideen artean arauak zehazteko garaian. Lehia horretan taldea bera desegin daiteke. Talde guztiak aritzen dira etengabe arauak aldatzen edo berresten.

Esan bezala, talde guztiak arautzen dute nolakoa behar duen izan bere baitan kideen arteko harremanak. Gauzak horrela, talde guztiak arautzen dute nolakoa behar duen izan bere baitan kide-



en arteko hizkuntzazko jokaerak, baita zein hizkuntza erabiliko den ere. Beste era batera esanda, taldeak arautzen du, modu aitortuan nahiz aitortu gabean, taldearen baitan kideek elkarrekin euskaraz edo erdaraz egingo duten.

Zergatik egiten du, orduan, talde batek erdaraz?

Taldeak horrela arautu duelako, hots, talde barruko hizkuntzazko jokaerari eusten dion arautegiak hala agintzen duelako. Jakinaren gainean arau dezake taldeak erdaraz hitz egitea (arau aitortua); maiz, ordea, ez da arrazoirik izaten (aitortu gabeko araua), besterik gabe, ekinaren poderioz erdaraz hitz egitea ohitura bihurtzen da, eta zaila gertatzen zaio taldeari ohitura bihurtu den hizkuntzazko jokaerari aurre egitea.

Nola has daiteke taldea euskaraz bizitzen?

Euskaraz egitea galarazten duen arautegia gaindituz, hau da, ohituraren aurka doan jokaerari helduz: gure kasuan, *euskaraz hitz eginez*. Erdaraz hitz egiteko ohitura duen talde batean euskaraz egiterakoan, hizkuntza araua apurtzen da. Lehen esan dugunez, gertaera horren aurrean taldeak bi joera har ditzake: aurreko araua aldarrika dezake edo araua apurtu duen jokaera berriaren alde joka dezake, hori ere egokia delakoan. Talde osoak ez du aho batez zertan jokaera berriaren alde edo aurka jarri, gerta daiteke taldeko kideen artean lehia handia piztea.

Kuadrillategiren kasura etorruta, taldeek esplizitatu beharrekoa honako hau da: prest daudela gurean parte hartzeko gutxienezko baldintzak betetz, hots, lagunarteko bost lagunekin batera emango dutela izena eta gurean diharduten denbora osoan elkarrekin euskara hutsean egingo dutela. Nola edo hala, gure aisialdi eskaintzan parte hartzeko eskaera egiten duen unetik beretik, koadrilak esplizitatu egiten du baldintza jakin batzuetan jokatzeko prestutasuna, hau da, euskaraz jokatze-ko prestutasuna.



Prestutasuna, ordea, ez da gauza nahikoa jokaera berria ohiturazkoa bihurtzeko. Ohikoa ez den hizkuntzan jardutea jokaera berria da. Jokaera berria behin eta berriro gauzatzuz baino ez da jokaera automatiko eta ohiturazko egingo. Berezko taldeek, hortaz, elkarrekintzan maiz samar jardun behar dute hizkuntzazko jokaera berria esperimendazio fasetik automatismo fasera igarotzeko.

Zer baldintza bete behar dira talde batean euskararen aldeko jokaera egon dadin?

Badira hainbat *baldintza objektibo* (soziolinguistik) bete beharrekoak:

* **Talde kide elebarraren presentzia eta talde kide euskaldunen kopurua eta hizkuntza gaitasunaren maila:** taldeko lagun guztiek euskaraz jakin behar dute. Oinarrizko gaitasuna, bederen, erakutsi behar dute. Nekez hitz egingo dute elkarrekin euskaraz, euskaraz txintik ez dakitenek. Erdal elebarraren presentziak, esaterako, erabat zapuztu ditzake hizkuntzazko jokaera euskararen aldera mugitzeko ahalegin guztiak. Talde kide euskaldunen kopurua eta hizkuntza gaitasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta errazago bideratuko da hizkuntzazko ohituraren aldaketa.

* **Euskaldunak eta erdaldunak taldearen egituraren betetzen duten funtzioa, betetzen duten tokia:** taldeko lidergoa euskaldunen esku egonda, erdaldunen esku egonda baino errazago egingo du aurrera prozesuak.

* **Taldea mugitzen den giroa:** prozesuak errazago egingo du aurrera tes-tuinguru euskaldun batean erdaldun batean baino.

Baldintza objektiboaz gain, badira beste hainbat *baldintza subjektibo* (psikolinguistik) ere bete behar direnak. Hona hemen jokaera berria lor dadin hiztunarengan eman behar diren hautemateak:

* Jokaera berria **desiragarritzat** jo behar du hiztunak. Euskararen kontrakoek edo axolagabeek ezer gutxi egingo dute lagunartean euskaraz egin dadin. Izan daitezke, gainera, euskaraz ulertzearekin konformatzen direnak, edota euskararen aldeko jaialdi erraldoietan euskaraz egitearekin konformatzen direnak. Horiek ere ezer gutxi egingo dute lagunartean euskaraz egin dadin.

* Jokaera berria **egingarritzat** eta **erabilgarritzat** jo behar du hiztunak, hau da, euskaraz ere kideen arteko harremanak modu egokian kudea daitezkeela hauteman behar du. Euskaraz galdetu, agindu, adierazi, maitatu, zirikatatu, zein gorrotatu ezin dela uste duenak nekez egingo du euskaraz taldean.

* Jokaera berriak **neurriko ahalegina** eskatzen diola hauteman behar du hiztunak. Euskaraz egiterakoan nekepenetan eta izerdi patsetan egoten den lagunak nekez izango du euskaraz egiteko gogorik.

Euskaraz ikasi eta bizitzeko gune babestuak behar dira, eta hori da Kuadrillategik eskaintzen duena.

Kalean, gutxitan sortzen dira baldintza horiek guztiak aldi berean. Gaztelaniari dagokionez, ordea, kalean maiz sortzen dira baldintza horiek guztiak. Kalea dugu, zalantzarik gabe, gaztelaniarik eta bizitzeko eskolarik onena. Euskaraz ikasi eta bizitzeko, ostera, gune babestuak behar izaten dira, arestian zerrendatu ditugun baldintzak bermatuko dituztenak. Kuadrillategi euskaraz bizitzen hasteko koadrilei eskaini zaien gune babestu bat dugu.

Gauzak horrela, hona hemen gure oinarri teorikoak laburbilduta:

* Hizkuntzazko jokaera, jokaera kolektiboa da, taldeak adostu eta arautzen duena.

* Hizkuntza ohituraren trataerak ikuspegi kolektiboa eskatzen du, horregatik hartzen dugu taldea gure esku-hartzearen unitatetzat.

* Taldeak esperimendatzeko gogoia adierazi behar du, hots, esplizitatu egin behar du prest dagoela baldintza jakin batzuetan gurean parte hartzeko; eta ondorioz, euskaraz jarduteko prest dagoela.

* Taldea euskarari eusteko gutxieneko baldintzak betetzen dituen gune babestu batean murgilaraztean datza gure esku-hartzea.

* Denbora epe jakin batean euskaraz jokatzearen poderioz, euskaraz aritzeari buruz dituzten hautemateak alda daitezke. Jokaera arrotza izateari utzita, ohitura bihur daiteke lagunekin euskaraz egitea.

* Gune babestuan errotutako hizkuntzazko jokaera kalean eman dadin, baldintzak bermatuko dituen harreman sareari eutsi beharko dio taldeak gune babestutik kanpo.

Marko metodologikoa

Kuadrillategi egitasmoa gure esku-hartzearen hastapen teoriko eta metodologikoetan sakontzeko aukera ematen digun ikerketa bada ere, gazteen zat *euskaraz egiten den aisialdi eskaintza bat besterik ez da*. Aisialdian gauzatu da gure esku-hartzea eta horrek gure marko metodologikoa bal-

dintzatu du ezinbestean. Gure marko metodologikoaren isla dugu segidako diseinua:

1) Ikerketak aisialdiko eskaintza soilaren itxura hartuko du gazteei aurkezterakoan.

2) 14 urteko gaztetxoei eskainiko zaie egitasmoa; hots, DBHko 3. mailakoei.

3) Bi urte iraungo du egitasmoak; beraz, 16 urte izango dituzte bukatzean.

4) Hiru baldintza bete behar dituzte, ezinbestean, egitasmoan parte hartzeko:

a. Ikasketak Bedo Dereduan egitea

b. Taldekako izen-ematea: gutxienez 5 lagunek eman behar dute izena.

c. Egitasmoa jardueretan euskaraz mintzatzea.

5) Egitasmoak bi jarduera mota eskainiko ditu:

a. Kultur lantegiak: 4 orduz astean, herrian bertan.

b. Oporraldietako jarduera ludikoa: herrien artean.

6) Lantegi bakoitzak hiru lagunarte elkartuko ditu eta dinamizatzaile batek hartuko du haren ardura.

7) Hilabetean behin aldatuko dira lantegiko partaideak, hiru lagunarte elkartuz aldi bakoitzean.

8) Lagunarte bakoitzak lau bilera egingo ditu ikasturteko dinamizatzaile batekin, bere asetze mailari neurria hartzeko.

Nola lortzen dugu gurean diharduten denboran lagunak euskara hutsez mintza daitezen? Euskaraz hitz eginarazten dien testuinguruan murgilduz.

Esan bezala, gure esku-hartzea aisialdian gauzatu da, eta horrek, halabeharrez, gure esku-hartzea baldintzatu du. Izan ere, aisialdia definizioz ezin baita derrigorrezkoa izan, borondatezkoa baizik; hortaz, taldeak gure aisialdi eskaintzan parte hartzea erabakitzen duenean baino ezin izango da esku-hartzea aurrera eraman. Zer dela-eta erabakitzen du, ordea, talde batek gurreratzeko? Ikus dezagun jarraian zer eskaintzen duen Kuadrillategik.

* Elkarrekin biltzeko gune fisiko bat.

* Jende berria ezagutzeko aukera.

* Gauza berriak egiteko aukera. Gure helburua, dena den, ez da inor ezertan trebatzea izan, baizik eta denboralibrea egin daitezkeen gauzak erakustea. Handik urte gutxira, erabaki ahal izango dute egin dituzten gauzen artean zein duten gustukoak, eta horri gonoraz heldu ahal izango diote federatuz edo elkarrekin batera joz.

Kuadrillategik hurreratu diren lagunak behar horiek asetzen badizkie, taldeak behar adina egingo dute Kuadrillategi irauteko. Horregatik, garrantzi handiko kontua da lagunak asetze maila. Etengabe erreparatzen zaio lagunak asetze mailari. Gure esku-hartzearen oinarria da. Kuadrillategi behar horiek asetzea lortzen ez badu, aspertuta, taldeak egitasmoa utziko du, horrela, esku-hartzea ezinezkoa eginez. Egitasmoak behar horiek asetzen dituen heinean, aitzitik, esku-hartzeak aurrera egin ahal izango du, eta taldeak inoiz hizkuntzazko jokaera euskararen aldeira irauli ahal izango dute.

Parte hartzea derrigorrezkoa ez den heinean, gure aisialdi eskaintzaren truke hainbat eskakizun egin ahal izan dizkiogu taldeari. Eskakizunak onartu eta betetz gero, taldeak aurrera egin ahal izan du gurean, onartu edo bete ezean, ostera, egitasmotik kanpo geratu da. Zein dira parte hartzeko baldintzak:

* Parte hartuko duten lagunak gutxieneko euskara gaitasuna izatea.

* Taldeko bost lagunek ematea gutxienez izena.

* Gurean daudenean euskara hu-

tsean egitea. Ez zaie euskaraz ondo hitz egiteko eskatu, zailtasunak zailtasun, euskara hutsean egitea baizik.

Kuadrillategin diharduten denboran, lagunak euskara hutsean mintzatu behar dira elkarrekin. Horixe da gure esku-hartzearen funtsa. Baldintza hori bete ezean, ez dago gaztelaniaren aldeko hizkuntzazko ohitura aldatzerik. Nola lortzen dugu, ordea, gurean diharduten denboran lagunak euskara hutsean mintza daitezen? Hain zuzen, euskaraz hitz eginarazten dien testuinguruan murgilduz. Izena emateko garaian, lagunei argi asko azaltzen zaie, Kuadrillategi eskaintzen dien aisialdiaren truke, elkarrekin euskara hutsean egin beharko dutela egitasmoko orduetan. Hortaz, aipatutako testuinguruak Kuadrillategi egitasmoa bera dugu. Horregatik diogu testuinguruak hala agintzen dielako egiten dutela gazteek euskaraz elkarrekin. Ez dago, inondik ere, lagunak esku euskaraz egitea edo ez. Kuadrillategin hasten den gazte orok badaki, aisialdiko eskaintzaren truke, euskara hutsean egin beharko duela eta, hitzartutakoa bete ezean, egitasmotik kanpo geratuko dela.

Ikasturte barruan, taldeekin hainbat saio berezi egiten dira. Negoziazio-saioak deritzen horietan, gazteek esaten digute ea eskaintza gustukoa duten. Guk, bestalde, baldintzaren bat bete ezean, egitasmoan jarraitu ahal izateko baldintza bete behar dutela gogorarazten diegu. Hiru asteko epea ematen zaie, eta epe horretan ez badute jokiera aldatzen, egitasmoa utzi egin beharko dutela jakinarazten zaie.

Ikasturte barruan astero bizpahiru orduz lagunarteko lagunekin euskara hutsean diharduten gazteak alda dezake lagunekin euskaraz egiteari buruz zuen hautematea. Guztiz arrotza eta nekeza gertatzen zitzaien jokaera ez zaio ikasturtearen buruan hain arrotza eta nekeza egiten, eta jokaera errepikatzaren poderioz, ohitura bihur daiteke. Horrelaxe lortzen du koadrila batek hizkuntzazko ohitura euskararen aldeira iraultzea Kuadrillategitik kanpo.

Kuadrillategi egitasmoaren emaitzak: 2001-2003

Azken hamabi urte hauen buruan gure esku-hartzearen marko teorikoa eta metodologikoa finduz joan gara egun indarrean dagoen diseinua eratu arte. Ikusgai genuen, hala ere, diseinu berriak beteko ote zituen iguripenak.

Diseinu hau 2001. urtean abiatu zen hainbat udalerritan bi ikasturtez. Segidan azalduko ditugun emaitzak bi urteko horri dagozkio, eta irakurleak ikusi ahal izango duenez, emaitzak onak dira. Gure unibertsoa 105 gazte osatu dute. Azterketa honen alderdi metodologikoak *Kuadrillategi 2001-2003: koadriletan euskararen erabilera suspertzeko egitasmoaren emaitzak* izeneko liburuan azaltzen dira luze eta zabal.

1. taula

	HASIERAN	BUKAERAN
Euskararen aldeko joera	55 gazte: % 52,3	62 gazte: % 59
Joera nabarmenik ez	27 gazte: % 25,7	40 gazte: % 38,1
Gaztelaniaren aldeko joera	23 gazte: % 21,9	3 gazte: % 2,8
GUZTIRA	105 gazte: % 100	105 gazte: % 100

Ikus dezagun, hala ere, emaitzen bilakaera nola gertatu den (2. taula).

Kuadrillategi aurretik, 55 gazte erakusten zuten euskararen aldeko joera. Horietatik 51 gazte bukaeran ere euskararen aldeko joera erakusten jarraitu du. Izandako galera, beraz, ez da esanguratsua izan, 4 lagun besterik ez. Aitzitik, erabilera hobe zezaketen 50 gazte horien artean 23 gazte lortu dute erabilera hobetzea, hau da, erabilera hobe zezaketen gazteen %62k. Horie-

Ikus ditzagun, bada, emaitzarik aipagarrienak.

Lagunen erabilerari buruzko emaitzak

Kuadrillategi aurretik 55 gazte euskaraz hitz egiten zuten, hau da, euskararen aldeko joera erakusten zuten. Hortaz, 50 gazte baino ezin zuten euskararen erabilera hobetu. Ondorengo taulan ikus daitekeenez, bi ikasturteren buruan nabarmen egin du gora joera garbirik erakusten ez zuten gazteen kopuruak. Gora egin du euskararen aldeko joera erakusten zuten gazteen kopuruak ere, baina modu apalagoan. Kuadrillategi aurretik gaztelaniaren aldeko joera erakusten zuten gazteei dagokienez, berriz, erabat murriztu da kopurua (ikus 1. taula).

tatik 11 gazte, gainera, euskararen aldeko joera erakustea lortu dute, erabilera hobe zezaketen gazteen %22k. Gainerako 20 gazteek modu nabarmen hobe dute erabilera maila, baina ez dute lortu helburua erabat gauzatea. Galerak, oraingoan ere, ikus daitekeenez ez dira esanguratsua izan. Aurretik aipatu dugun laukoteari beste hiru lagun baino ez zaizkio gaineratu behar. Horiek horrela, gazteen erabilera sustatzeko Kuadrillategi egitasmoa eraginkorra izan dela esan dezakegu.

2. taula

		Gazteen erabilera bukaeran			Guztira
		Euskararen aldeko joera	Joera nabarmenik ez	Gaztelaniaren aldeko joera	
Gazteen erabilera hasieran	Euskararen aldeko joera	51	4		55
	Joera nabarmenik ez	10	16	1	27
	Gaztelaniaren aldeko joera	1	20	2	23
Guztira		62	40	3	105

Lagunen gaitasunari buruzko emaitzak

Gaitasunari dagokionez, emaitzak apalagoak izan badira ere, datuek argi erakusten dute egitasmoan parte hartu duten gazteen ehuneko esanguratsu batek hobetu duela bere gaitasuna. Hori horrela, esan dezakegu gaitasunaren hobetzeari begira ere egitasmoa eraginkorra gertatu dela (ikus 3. taula).

Kuadrillategi aurretik, 51 gaztek hitz egiten zuten euskaraz oso ongi; hortaz, 54 gaztek baino ezin zuten gaitasuna hobetu. Gaitasuna hobe zezaketan gazteen %37k hobetu dute beren gaitasuna Kuadrillategi amaitzean. Hortaz, gaitasunari dagokionez, esan dezakegu izan dela hazkunde adierazgarririk. Edonola ere, multzoak banaka aztertuz gero, ez dirudi multzo guztietan hazkunde esanguratsurik izan denik. Hasieran euskaraz “oso ongi” hitz egiten zuten gazteen multzoan, adibidez, hazkundera txikia izan da; “nahiko ongi” hitz egiten zuten gazteen multzoan, aldiz, hazkundera esanguratsua izan da (ikus 4. taula).

Erabilerarekin gertatu bezala, oraingoan ere galerak ez dira, inolaz ere, esanguratsuak gertatu. Euskaraz oso ongi hitz egiten zuten gazteen multzoan ez da galerarik izan, eta euskaraz nahiko ongi hitz egiten zuten gazteen multzoan, berriz, lagun bakar batek baino ez du atzera egin.

Laburbilduz, beraz, argi dago esku-hartzea euskararen erabilera suspertzeko guztiz eraginkorra dela; berdin dio taldearen ezaugarriak zein diren, esku-hartzean murgilduz gero euskararen erabilerak gora egiten du taldean. Hala ere, hizkuntzazko ohituraren aldatzea prozesua erabat gauzatzeko, taldeak ezaugarri jakin batzuk izan behar ditu bi urteren buruan euskararen aldeko joera erakutsiko badu. Ezaugarri horiek eduki ezean, nekez lortuko du taldeak bi urteren buruan euskararen aldeko joera erakustea, hau da hizkuntzazko ohituraren prozesua erabat gauzatea. Asko jota, prozesua abiatu ahal izango du gaztelaniaren aldeko joera baztertuz, eta ez da lorpen makala,

3. taula

	HASIERAN	BUKAERAN
OSO ONGI	51 gazte: % 48,5	54 gazte: % 51,4
NAHIKO ONGI	31 gazte: % 29,5	44 gazte: % 41,9
ZERBAIT	23 gazte: % 21,9	7 gazte: % 6,6
GUZTIRA	105 gazte: % 100	105 gazte: % 100

4. taula

		Gazteen erabilera bukaeran			Guztira
		OSO ONGI	NAHIKO ONGI	ZERBAIT	
Gazteen gaitasuna hasieran	OSO ONGI	51			51
	NAHIKO ONGI	3	27	1	31
	ZERBAIT		17	6	23
Guztira		54	44	7	105

hori baita lehen urratsa inoiz euskararen aldekoa erakusteko. •

Bibliografia komentatua

- JAUREGI ETXANIZ, Pello: *Berezko taldeak euskalduntzeko ikas estrategiak*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 1998.

Liburu honetan luze eta zabal azaltzen da gure esku-hartzearen euskarri den marko teorikoa. Lehenengo ikerketa zikloko ikerketaren nondik norakoak ere biltzen dira. Liburu mardula da, doktorego tesi bati dagokion moduan. Sarrera eta oinarri teorikoak biltzen dituen bigarren atalaren irakurketa gomendatzen dut. Lehenengo bi puntuak batik bat, ikuspegi indibidualista versus ikuspuntu kolektiboa, eta berezko taldeak eta hizkuntza sozializazioa izenekoak. Euskalgintzan buru-belarri denbora luzean jardun duen gizona dugu Jauregi. Oso ondo ezagutzen du euskalgintza, eta egun indarrean dagoen hainbat joerari kritika zorrotza egiten dio aipatu ataletan.

-JAUREGI, Pello; EGIZABAL, Diego; HUEGUN, Axier; eta beste: “Kuadrillategi”, in *Gazteak eta euskara*. Gazteen euskararen erabilera sustatzeko gida, Hik Hasi, Lasarte-Oria, 2000 (130-141).

Tesi-lana baino didaktikoagoa, modu argigarri eta labor batez gure esku-hartzearen euskarri den marko teorikoa azaltzen da. Bigarren ikerketa zikloko ikerketaren nondik norakoak ere biltzen dira labor-labor, baita orduko marko metodologikoa ere.

-EGIZABAL OLLOKIEGI, Diego: *Kuadrillategi 2001-2003. Koadrillatan euskararen erabilera suspertzeko egitasmoaren emaitzak*. Caja Laboral-Euskadiko Kutxa, 2000.

Hirugarren ikerketa zikloko ikerketaren nondik norakoak biltzen dira xehetasun osoz. Irakurterraza, esku-hartzearen marko metodologikoa azaltzeaz gain, esku-hartzearen emaitzak ere xehetasun osoz biltzen ditu liburuak. Gure esku-hartzearen eraginkortasunaz jakin nahi duen orok liburu honetara jo behar du nahitaez.

kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

Alberto Agirreazaldegi: *“Gaztelania soilik jakitea ez da nahikoa euskal gizartean, eta hori argi adierazi behar zaie etorkinei, batez ere latinoamerikarrei”*

Alberto Agirreazaldegi jaura Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean, besteak beste, aholkulari lanak burutzen ari da ikasle etorkinak euskal hezkuntza sisteman integratzeari begira. Guretzat nahiko berria den fenomeno honi administrazio aldetik ahalik eta erantzun egokiena biltzen ari zela berari egokitu zaio, hein handi batean. Hala bada, elkarrizketa honen bidez, fenomeno horren aurrean duen ikuspegi-
ra hurbiltzen saiatu gara.

2004-2005 ikasturte honetan, EAEko ikastetxeetan zenbat haur ditugu matrikulatuak? Zenbat probintziako? Zenbat ereduko? Zenbat ikastetxetan?


Gaur egun EAEn gutxi gorabehera 10.000 ikasle etorkin ditugu, egunetik egunera kopuru hori gehitzen doalarik.

Pasa den ikasturte bukaerako datuei begiratzen badiugu (2003-2004), ikasturte bukaeran 8.647 ikasle etorkin genituen irakaskuntza arautuan matrikulaturik. Duela

hiru urtetik hona ikasle etorkinen matrikulazio tasa urtero % 40 ari da hazten, etorkinen eta bertakoen arteko erlazioa hirukoiztu egin delarik azken lau urteotan, % 0,95tik % 3,13ra pasaz. Ikasle etorkin horien ia bi herenak (%69) latinoamerikarrak dira.

EAEko hiru lurralde historikoetan dauden ikasle etorkinen kopuru osoari begiratzen badiogu, Bizkaian dugu EAEko ikasle etorkinen erdia, % 52,7, Gipuzkoan % 28,8, eta Araban % 18,5. Hala ere, datuak probintzia bakoitzeko ikasleria osoarekin alderatzen baditugu, ehunekoak aldatu egiten dira: Araban % 2,53; Bizkaian % 1,59; Gipuzkoan % 1,45.

Eskola sareen banaketari dagokionez, sare publikoak pasa den ikasturte bukaeran ikasle etorkinen % 70 (6.042 ikasle) biltzen zuen, eta itunpeko sare-



Alberto Agirreazaldegi, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko aholkularia.

ak % 30 (2.605 ikasle). Hala ere, lurraldetik lurraldera ehuneko horiek asko aldatzen dira. Honatx datuak:

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%
Publikoan	1.289	81	3.405	75	1.348	54	6.042	70
Itunpekoan	307	19	1.158	25	1.140	46	2.605	30
Guztira	1.596	100	4.563	100	2.488	100	8.647	100
%	18,5		52,7		28,8		100	



Ereduei dagokienez, EAeko ikasle etorkinen erdia (% 54), iazko ikasturtean A ereduan zegoen matrikulaturik, % 27 B ereduan, eta % 19 D ereduan. Kasu honetan ere, lurralde historiko batetik bestera, bada alderik. Hala, Gipuzkoan ikasle etorkinen % 78, B eta D ereduetan matrikulatua zegoen bitartean, Araban, ikasle etorkinen % 19 baino ez zegoen eredu horietan ikasten.

Sarri kritikatu izan da ikasle etorkinen matrikulazioa dela eta, ghattizazio fenomeno bat sortzen ari dela ikastetxe konkretu batzuetan. Hori zer dela eta gertatu dela uste duzue? Horri aurka egiteko zein bide hartu dituzue edota hartuko dituzue?

Ez dago arrazoi bakar bat. Gehiengotan eskolaz kanpoko arrazoiak izan ohi dira. Etorkinak auzo jakin batzuetan bizi dira etxebizitza arazoak tarteko. Ondorioz, gertuko ikastetxean eskolatzea nahi izaten dute, eta horixe da bidezkoena, eskolan auzoko lagunak aurkituko dituelako eta integrazioa naturalagoa izango delako. Baina, ikastetxe horietan etorkin asko pilatzen direnean,

hiri handietan batez ere, bertako ikasleek alde egiten dute etorkinekin ez nahasteko, eta orduan sortzen da ghattizazioa. Are gehiago oraindik egoera sozial eta familiar baztertuetan dauden ikasle gehiago aurkitzen badira bertan. Hori da itxurazko gizarte solidario honen hipokresia. Hezkuntza Sailean dauzkagun irizpideak argiak dira eta horrela jasota daude “Ikasle etorkinak eskolatzeko Programan”. Baina eskolaz kanpoko faktoreen eragina nabarmena da batzuetan. Eskolatze Batzordeek ausart jokatu beharra daukate hori ekiditeko eta ikastetxea aukeratzeko eskubidearen gainetik beste arrazoi batzuek jarri beharko lirake. Baina hori gaizki ikusia dago gizartean.

Zein ezaugarritako haurrak hartzen dituzue ikasle etorkintzat?

Arriskutsua da batzuetan definizio zurrunik egitea, ez delako beti asmatzen. Baina, oro har, beste hezkuntza sistema batetik datozenak eta hemengo hizkuntzak ezagutzen ez dituztenak dira etorkinak. EAeko hezkuntza sistemak ezaugarri bereziak ditu, bai hizkuntzaren aldetik eta bai curriculumaren aldetik ere, eta beharrezkoa da neurri batzuk arautzea ikasle etorkinak EAeko hezkuntza sistemara behar bezala egokituko direla bermatzeko. Zentzu horretan, ikasle etorri berriak, laguntza edo arreta berezia behar dute-lako, dira guretzat etorkin.

2004ko udaberrian “Ikasle etorkinak artatzeko programa” kaleratu zenuen. Zer-nolako harrera izan du administrazioan, erakundeetan eta

ikastetxeetan? Eta etorkinen gurasoen aldetik?

Harrera oso ona izan du Programak. Administrazioetik sortutakoa izan denez, bete beharreko programa da administrazioarentzat. Programa hori gauzatzeko diru kopuru handia jarri du Administrazioak baliabideak bermatzeko aldera. Ikastetxeetan eta erakundeetan ere begi onez ikusi dute. Programa hori indarrean jarri ez bazen, ezin izango ziren hainbat jarduera eta esku-hartze martxan jarri. Etorkinen gurasoen aldetik, interes handiarekin hartu dute, euren seme-alaben arazo askori aurre egiteko aukera eskaintzen dielako. Nolanahi ere, hasieran gaudenez, programa horren jarraipena egin beharra dauka-gu hobekuntza neurriak etengabe egiteko.

Programa horren helburu nagusia ikasle etorkinen “integrazioa” omen da. Zer adierazi nahi du zuentzat “integrazio” hitzak?

Integrazioa ez da soilik gure kultura eta ohiturak asimilatzea beren nortasuna galduz. Ez da geureganatzea, bertakotzea baizik, eskubide eta betebeharrak guztiekin, bakoitzaren izaera errespetatuz. Etorkinen integrazioa lortu nahi da, baina euren izaera eta nortasuna ezereztu gabe. Eskolak kanpoko ezberdintasunak konpondu ezin baditu ere, barnean berdintasuna eta kulturarteko hezkuntza bultzatu behar du, ikasle bakoitzaren nortasuna eta kultura errespetatuz. Programaren integrazio-printzipioak argi dio: “helburu hori kultura desberdinetako ikasleekin betetzeko biderik koherenteena kultura arteko hezkuntza da, hau da, berdintasunean eta dibertsitatearekiko errespetuan oinarritutako hezkuntza.”

“Integrazio” hori lotzeko, Hezkuntza Sailak zein arlo landuko ditu? Nola? Jada zein baliabide, programa... dituzue martxan edota eskaini dizkizue ikastetxeei hori lortzeko?

Programa indarrean jarri denetik hainbat jarduera jarri ditu indarrean Hezkuntza Sailak: irakasleen prestakuntza eta horientzako materialak sor-

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%
A eredia	1.298	81	2.844	62	547	22	4.673	54
B eredia	240	15	1.026	23	1.095	44	2.364	27
D eredia	58	4	693	15	846	34	1.590	19
Guztira	1.596	100	4.563	100	2.488	100	8.647	100
%	18,5		52,7		28,8		100	

tzea izan da lehen egitekoa. Horrela, ikastetxeetan harrera plana egiteko orientabideak eman dira eta irakasleen prestakuntzara zuzenduriko hainbat saio egin dira. Aurrerantzean ere egiteko asmoa dago. Bestalde, hizkuntza indartzeko programa jarri zen indarrean iaz, eta aurten ere baliabide asko jarri dira programa hori gauzatzeko. Familia etorri berriekin harremanak izateko interpretetarako jartzen dira bitartekaritzaren bitartez harrera egokia gauzatzeko. Horrez gain, euskal hezkuntza sistemari buruzko informazio-gida eleaniztun bat argitaratu du Hezkuntza Sailak familia etorkinen artean banatzeko.

Euskararen ezagutzari garrantzia handia ematen diozue programa honetan. Hori dela eta, pasa den ikasturtetik hasita ikasle etorkinei begirako errefortzu linguistikoak eskaintzen dira zenbait ikastetxetan. Zein ezaugarri izan behar ditu ikastetxe batek euskara errefortzu horiek lortzeko? Hau da, zenbat etorkin; zer ezaugarritako etorkinak? Errefortzu horiek nola eskaintzen dira? Hau da, lanordua osoz, erdiz...

Lehen esan bezala, hizkuntza indartzeko programa jarri zen martxan iaz, eta programa horri esker, ikasturte honetan 115 irakasle jarri dira ikastetxe publikoetan eta diru laguntza deialdi bat atera da itunpeko ikastetxeentzat. Programa horren helburua da euskaraz ez dakiten ikasle etorkinei arreta berezia eskaintzea hizkuntza eta komunikazio gaitasunak lortzen laguntzeko. Hezkuntza sisteman sartu berriak izanik, euskaraz komunikatzeko zailtasun handia duten eta, beraz, hizkuntza-aren aldetik plan indargarri bat behar duten ikasleei arreta emateko pentsatuak dira baliabide horiek. Indarketa programa LHko eta DBHko ikasleentzat zuzendua dago, ikasle berantiar etorri berriek hizkuntza ahalik eta azkarren ikas dezaten. Beraz, ikastetxeak baliabide hori lortzeko ezaugarri horretako ikasleak izan behar ditu eta proiektu bat aurkeztu behar du eskatzen diren baliabideak zehaztuz eta esku-hartze pro-

posamena eginez. Horrez gain, kontuan hartzen da ikastetxeak daukan etorkin kopurua eta etorri berriena. Ondorioz, irakasle oso bat edo bi ikastetxeen artean partekatua eskaintzen zaie ikastetxe publikoetara proiektua aurrera eramateko eta bertako irakasle bat proposatu behar du ikastetxeak. Aldiz, itunpeko ikastetxeentzat diru laguntza deialdia egin da eta eskaera egin ondoren baldintzak betetzen dituztenei astean 23, 12 edo 8 orduko errefortzua gauzatzeko diru laguntza ematen zaie.

Haur Hezkuntzako haurrei begira, kanpora begira behintzat, badirudi ez duzuela euskara errefortzurik jartzen. Hala al da? Eta hala bada, zergatik? Adinaren arabera integrazio programa desberdinak pentsatu al dituzue? Adinak zer garrantzi edo eragin du integrazio prozesuan?

Zenbat eta adin txikiagoa izan orduan eta errazago ikasten du haur batek hizkuntza berri bat. Komunikazio estrategiak askoz errazagoak dira haurren artean gaztetzoen artean baino. Ez da berdin Haur Hezkuntzako ikasle bati edo Bigarren Hezkuntzako ikasle bati hizkuntza bat irakastea. Hiruzpalau urte dituen haurra gelara zuzenean egoki daiteke murgiltze programak direla medio, baina DBHko ikasleak arreta berezia behar du, laguntza egoki baten bitartez. Haur batek inguruko guztia zurruputzen du nahigabe ere. Curriculum mailan desfaserik ez duenean beharrela jartzen da beste ikasle mailan

Ikastetxeek hizkuntza indarketa programa lortzeko, ikasle berantiar etorri berriak eduki behar dituzte eta proiektu bat aurkeztu behar dute.



eta errazago egiten zaio gelakideen erritmoa jarraitzea. Aldiz, ikasle helduagoek integratzen zailtasun handiagoa azaltzen dute.

Zer neurri hartzen dira gaztelania dakiten eta ez dakiten etorkinentzat euskal hezkuntza sisteman integratzerako orduan? Berdinak? Desberdinak?

Ez da bereizketarik egiten. EAEn bi hizkuntza dira ofizialak eta biak ezagutzeko aukerak eskaini behar zaie. Biak dira beharrezkoak etorkinak integratzen osoa izan dezan. Gaztelania ezagutzen dutenek euskara ikasi behar dute. Gaztelania soilik jakitea ez da nahiko euskal gizartean, eta hori argi adierazi behar zaie etorkinei, batez ere latinoamerikarrei. Eskolak integratzen aukera guztiak eskaini behar dizkie, bi hizkuntzak irakatsiz eta bietan aritzeko aukerak eskainiz.

Bukatzeko, urte berria hasi berri da. Zer eskatzen diozu 2005 urte honi?

Ezer ez, urte berriak berez ez duela ezer ekarriko. Eskatzen duten gizarteari eskatuko nioke, eskolari gehiegi eskatzen zaiolako eta etorkinak gizarteratzea gizarte osoaren eginkizuna delako. Eskolak bere egitekoa du gizartean, baina dena ezin da utzi eskolaren esku. Gizarteak beste maila guztietan erantzun behar du. Eskola gizartearen ispilu izango da, eta ez alderantziz. Beraz, gaurko gizartea anitza denez, gizarteak bere gain hartu behar du kultura anitzasuna eta gizartekide guztion eginkizun bihurtu.

Ikasle etorkinei euskara irakasteko proiektu eta material didaktikoen erakus-truke topaketa

Lekua: LA BOLSA eraikina. Pelota kalea, Alde Zaharra(BILBO).

Eguna: 2005eko otsailaren 1ean

Ordua: 17:30etik 21:00etara erakus-truke topaketa

*18:30ean M^a Jose Eguzkitza: Etorkinen harrera

*19:00etan ADARRA Pedagogi Erakundeko Kristina Elortza: Hizkuntza trataera

Informazio gehiago eta izena emateko:

BIGE-EHIGE bige@ehige.org / ehige@ehige.org
Itziar Aramaio: 655 723 965 / itziaramayo@msn.com

Galtzeko ez duzu ezer, baina bai irabazteko. Parte har ezazu!

Materialak, unitateak, esperientziak... trukatuz, denok etxera hainbat material eskuan!

Zuk niri bi, nik zuri bi! Hori da trukea!

Ikastetxeetan martxan dauden kulturarteko zenbait proiektu ere erakusgai! Zuk ere ikastetxean, elkartean, herrian... kulturarteko proiekturik, esperientziarik edo lanik aurrera badaramazu, parte har ezazu!

Zure parte-hartzea behar dugu!

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak urtarrila

Amezketako eskolan Internetik gabe daude 10 hilabetez

Amezketako Zumardi herri ikastetxean 10 hilabete daramate Internet zerbitzurik gabe eta Gabonetako oporren aurretik protesta egin zuten Gipuzkoako Hezkuntza ordezkari-tzaren aurrean.

Konpetentzia arazo baten ondoren daude zerbitzu hori gabe. Izan ere, lehen zuten zerbitzua hobetze aldera, Telefonicari bigarren linea eskatu zioten, eta horrek dauzkaten bi eraikinen arteko zerbitzua doakoa izatea ahalbidetzen zien. Eusko Jaur-laritzak, ordea, Euskaltelekin du hitzarmena. Ondorioz, bi konpainien arteko tira-birak sortu dira, eta bitartean Amezketako eskolako irakasleak eta ikasleak Internetik gabe daude. Horrek eguneroko lanean trabak sortzen dizkie, gaur egun Interneta beharrezko tresna baita hainbat gauza egiteko hezkuntza esparruan ere.

Eskola kirolaren gaineko manifestua egin dute haurrek

2004. urtea Kirolaren bidezko Heziketaren Europako Urtea izan dela baliatuz, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat gaztek horren inguruko gogoeta egin zuten Donostian abenduaren 11 eta 12an. 11 urte inguruko ehun gaztetik gora elkartu ziren eskola kirolari buruzko gogoeta egiteko, eta manifestu zirriborro batekin amaitu zuten biltzarra. 10 puntuz osatutako manifestu zirriborroan guraso, irakasle, haur, epaile eta agintariek eskola kirolean aintzat hartu beharreko azalpenak biltzen dira. Hemendik aurrera eskolatan eztabaidatuko da bi hilabetetan zehar, eta ondoren, agintariei helaraziko diete.

Hona hemen Eskola Kirolaren Manifestuaren zirriborroko hamar puntuak:

1.- Haurrak gara eta kirolean ere haur izaten jarraitu nahi dugu eta denbora gehiago izan behar dugu jolasteko.

2.- Guztiok dugu kirola egiteko eskubidea: mutil edo neska izan, oso onak edo oso txarrak, gizenak edo gorputzean edo adimenean arazoren bat eduki.

3.- Irakasleek eta begiraleek pixka bat gehiago entzun behar digute zer nahi dugun jakiteko, eta guk, berriz, kasu gehiago egin behar diegu beren esaneri, betiere gure hobe beharrez egiten dutelako.

4.- Gure gurasoei eskatzen diegu kirolean laguntzeko, baina betiere gure nahiak errespetatuz, eta ez dezatela helburu bezala jarri gu beraiek izan ez ziren txapeldunak izatea.

5.- Kirol mota asko praktikatu eta ezagutu nahi ditugu, hartara, handitzen garenean, lagunekin gusturago ibili ahal izateko.

6.- Kirol instalazioek gu aintzat har-

tzea nahi dugu, seguruagoak izan daitezela guretzat eta toki gehiago eduki dezatela jolasean lasai ibil gaitzen.

7.- Gure herrietako taldeetan agintzen duten pertsona nagusiei eskatzen diegu jolasten eta jolasean ikasten uzteko, beti beren onura helburutzat hartuta eta onei bakarrik begira egon gabe.

8.- Agintariei eskatzen diegu, haur da, politikoei, ez dezatela utzi gu gaizki tratatzen, eta saia daitezela guretzat begiralerik onenak jartzen.

9.- Guztiok gehiago errespetatu behar dugu natura, eta mendira goazenean eskiatzera edo itsasora olatuak hartzera, eramaten dugun guztia bildu behar dugu.

10.- Azkenik, adierazten dugu munduko haur guztiok dugula haur izateko eskubidea eta kirola egiteko aukera izatekoa ere bai. Adierazten dugu, baita ere, Euskal Herriko haurrak solidarioak garela kirola egin ordez adreilua egiten eta zabortagietan plastikokoak biltzen ari diren haurrekin.

Adierazpen hau zirriborro bat da, eta Euskal Herriko eskola guztietan aztertzea da gure nahia, 2005eko lehen hiru hilabeteetan ikasleek hobekuntzak sar ditzaten, puntu gehiago proposatu ditzaten amaierako testurako eta jendaurrean jarria izan dadin mundu guztiak ezagutu eta errespetatzeko.

Donostian, 2004ko abenduaren 11



Elbira Zipitriaren ibilbidea gogora ekarri dute bere lankide eta ikasleek

Liburuaren egileekin bildu ziren haren txokorik maiteenak bisitatzeko

Hik Hasik argitaratu duen *Ilunetik argira, Elbira Zipitria* liburuak bati baino gehiagori astindu dizkio barrenak edo oroitzapenak, bereziki hura ezagutu eta haren ondoan egon zirenei. Hala xe adierazi zuten liburuaren aurkezpenean elkartu ziren Elbiraren lankide eta ikasle izandako batzuek.

Resu Abasolo, Juana Lopez de Munnain eta Arantxa Urbe liburuaren egileak pozik agertu ziren egindako lanarekin, Elbira Zipitria bezalako emakume batek merezi baitzuen.

Edonola ere, liburuaren azalpenek baino garrantzi handiagoa hartu zuen ondoren Donostiako Alde Zaharrean egin zen ibilbideak eta haren ikasle eta lankide izandakoez gogora ekarritako kontuek. Lehen geltokia Elbira Zipitriaren etxea izan zen, Fermin Kalbeton 26. zenbakian. Hantxe zegoen bere etxea eta ikastola. *“Hortxe egoten ginen”* zioen Arantxa Mendizabalek, Elbirarekin praktikak egiten urtebete egon zen irakasleak. *“Leihoak eta pertsianak batera ireki gabe egoten ginen, ilunpetan, klandestinitatean, gerra ondorenean debekatua baitzegoen euskaraz eskolak ematea”*.

Handik Orixe ikastolara. Mari Karmen Mitxelenak Elbira eta beste bi andereñorekin batera han nola hasi ziren ederki gogoratu zuen. *“Urteetan zehar gurasoek bildutako diruarekin erosi genion Aurrezki Kutxari eraikin hau, eta gero, publikatutakoan, Eusko Jauriaritzari erregalatu”*.

Bidean gora jarraituta, Santa Maria elizaren ezkerreko horman *“Andereño Elbira Zipitria bidea”* jartzen duen harritzko kartela dago. Ez zioten kasualita-



Elbira Zipitriaren etxe-ikastola, Donostiako Alde Zaharreko Fermin Kalbeton 26.ean.

tez jarri izen hori pasabide edo kale estu horri. Izan ere, hortik gora sarritan igotzen zen Elbira bere ikasleekin, Urgulleraino jarraituz. Haren ikasle izandako Antton Mendizabalek hala dio: *“Santa Maria elizatik pasatzen ginen bakoitzean otoitz egiten genuen, baina berak bat-batean asmatzen zuen otoitza”*. Gauza bera egiten omen zuten Urgullera igotakoan, eta baita abestu ere, han inork ez baitzien entzuten eta galarazten. *“Nire hark erakutsi zidan beste modu batera otoitz egiten; daukaguna eskertzeko bere norberaren hitzak erabiliz”* dio Mari Karmen Mitxelenak.

Liburuaren egileek dioten bezala, liburu honek Elbira Zipitria eta haren lana gehiago ezagutzeko balioko du, eta noski, aurrerantzean gehiago sakondu nahi duenarentzat atea irekita daude eta bidea hasita.



Liburuaren aurkezpenean egileak eta Elbira Zipitriaren ikasleak eta lankideak.



Mari Karmen Mitxelenak Orixe ikastolaren atariari begira azalpenak ematen.



“Andereño Elbira Zipitria bidea” Donostiako Alde Zaharrean, Santa Maria elizaren ezkerrean.

Argitalpenak



Bidaia giza gorputzaren barrenean

Oinarrizko liburutegia
GAIK

Liburu honek gorputzaren funtzio-namendua azaltzen du modu erraz eta atseginean. Irudiekin baliatuz, hainbat organoaren deskribapena egiten du, eta zenbait berezitasun eta galdera kuriosori erantzuna ematen die; besteak beste, bihotzaren, digestioaren, sistema inmunitarioaren eta biriken barneko ezkutukoak agertzen ditu. Modu erakargarri eta errazean irakurtzekoa •



Kirola egiteko 25 arrazoi

Luis Mari Zulaika

2002an kirola egiteko 30 arrazoi eman zizkigun egile honek, eta orain beste 25ekin dator. Aurreko lanaren jarraipena da, eta filosofia berarekin egin dago: ariketa fisikoaren onurak ezaugarraztea bai osasunean, bai eremu fisikoan eta bai arlo sozialean. Era berean, kirol jardueraren ezaugarri hezitzailea azpimarratzen da. Marrazki koloretuak ikusita, liburuak ez du aitziarik uzten geldirik egoteko •



Txan magoa Zirkuf-zirkuf

Juan Kruz Igerabide
ELKARLANEAN

Txan magoaren hirugarren liburua da hau. Juan Kruz Igerabidek bere lumaren ukituarekin poesia eta magia erantsi die Txan magoaren abenturei. Aipatzekoak dira Julen Tokeroen marrazki bizi eta umoretsuak. Txan magoa zirku batera joaten da bere laguntza behar dutelako. Izan ere, domadoreak eta tximinoak zirkuko animaliak gaizki tratatzen dituzte •



Xola eta Angelito

Bernardo Atxaga
EREIN

Bernardo Atxagaren pertsonaia ezagunetarikoa da Xola txakurra. Aurreko ibilbideei jarraiki, liburu berri honetan lagun baten baserrira joan da, eta hango txakurraren eraginpean erabat aldatzen da gure Xola sinpatikoaren izatea. Erabat egin zaigu jatorri, hizkeran eta beste... Mikel Valverderen marrazkiez hornituta, liburu goxo eta dibertigarria da •



Gandhi, bizitzaren maisua

SAURE

Euskarazko hamar komiki ipuin biltzen dira liburu honetan. Ipuinak adina egile dira, eta bakoitzak bere estiloa du. Ondorioz, marrazki eta irudi askotarikoak topa daitezke. Baina denek dute gauza bat komunean: Gandhi agertzen dela. Modu batera edo bestera, present dago istorio guztietan. Izan ere, bakearen gaia lantzen dute guztiek. Lan honek "Bakearen aldeko" 2. Fernando Buesa Saria jaso du. •



Eguzkiaren uhartea

IBAIZABAL

CD-ROM honetan estrategia eta eraikitze joko bat dago eta garapen iraunkorrari buruzko gaia jorratzen du, ingurumenaren eta gizartearen arteko oreka lortzearen garrantziaz ohar gaitzen. Helburu hori lortzeko, uhar-te batean kokatzen da argumentua, baliabide natural mugatuak dituen eta kutsadura arazo larri bati aurre egin behar diona. Hiru zailtasun maila ditu, beraz, adin desberdinetakoentzat da •


Pello Añorgaren ipuin sorta berria

Elkarren Birundan Sailean bilduma ausarta, indartsua eta koloretsua osatu du



Pello Añorga idazle eta ipuin kontalariak eta Jokin Mitxelena marrazkilariak beraien neurri-neurrira sortutako saila da "Birundan" eta dagoeneko lau liburu argitaratu dituzte, Elkar argitaletxearen eskutik: *Adio, adio!*, *Ni ez naiz txerria*, *Haur zeru-lurtarra* eta *Ahulerio*.


Gai aldetik begiratura, desberdinak direla esan liteke. Lehenengoan heriotza



agertzen zai-




gu; bigarrean itsusi konplexua duen mutiko bat; hiru-garrenean Argia eta Iluna dira protagonista; eta laugarrenean zizarearen gaixota-



SU-
na duen mutiko bat. Elkarrekin zerikusirik ez duten gaiak dira, pertsonaia arunt desberdinak dituztenak, baina bada guztietan umorea eta esajerazioa. Hitz leunak eta zuzenak, goxoak eta zorrotzak erabiliz, gai bakoitza inolako zeharbiderik erabili gabe azaleratzen du. Irakurtzean pentsarazten duten liburuak dira, haurrentzako nahiz helduentzako modukoak.

Marrazkiak edo ilustrazioak ere ipuinei erabat lotuta daude, bien arteko harmonia nabaritzen delarik. Testuek duten esajerazio eta umore ukitua nabaritzen da ilustrazioetan ere, eta koloreek sortzen duten jolasa aipagarria da.



Jada herri askotan proiektatu da **ILARGIAREN SEKRETUA** filma. Hala ere, pantaila handian eskaintzeko inork alokatu nahiko balu, gurekin harremanetan jar liteke. 943 371 408 edota, hikhasi@hikhasi.com

2004ko Isaac Lopez-Mendizabal eta Migel Altzo sariak banatu dira



Issac Lopez-Mendizabal eta Migel Altzo lehiaketetako sarituak Donostiako Miramar jauregian.

Urterko zitari hutsik egin gabe, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aurtengo euskarazko ikasmaterial onenak eta berritzailenak saritu zituen Donostiako Miramar jauregian egin zen ekitaldian. Isaac Lopez-Mendizabal eta Migel Altzo lehiaketako sari banaketan euskarazko ikasmaterialen kalitate ona aipatu zen, eta argitaletxeak zoriondu ziren. Edo nola ere, batzuk merezimendu hobea jaso zuten, saria, alegia: diru laguntza eta oroigarria. Hona hemen aurtengo sarituak:

Isaac Lopez-Mendizabal, idatzizko materialen lehiaketako sarituak:

Euskaraz irakasteko testu liburu-rik onena: Erein argitaletxearen *Matematika LMH6*.

Euskara irakasteko testu liburu-rik onena: Elkarlanean argitaletxeak Ikastolen Elkartearekin batera argitaratutako *Ikaslearen liburua 2 - Txanela (LMH)*.

Irakaslearen gidalibururik onena: Giltza-Edebé argitaletxearen *Kilika 4 urte Baliabideen artxibategia*.

Oinarrizko irakurgairik onena: Elkarlanean argitaletxeak Ikastolen Elkartearekin batera argitaratutako *Irakurgaiak 2 - Txanela (LMH)*.

Ikasmaterial osagarriarik onena: Zubia argitaletxearen *Matematikako koadernoak 1.1, 1.2, 1.3 LMH*.

Migel Altzo, Teknologia Berrieta-ko materialen lehiaketako sarituak:

Jatorrizko bideorik onena: sari hau hutsik gelditu da. Multimedia-softwarean aipamen berezia jaso du Ihardun Multimedia kooperatiba elkartearen *Teknologia eta gizartea* CD-ROMak.

Bikoiztutako bideorik onena: ez da bideorik aurkeztu. Multimedia-softwarean aipamen berezia jaso du Ann Foreman andrearen *English with the finglies - Primary 1* CD-ROMak.

Audiorik onena: Sortzen-Ikasbatuaz *Kontu txikiak*.

Software arruntik onena: ez da

ezer aurkeztu. Multimedia-softwarean aipamen berezia jaso du Azul multimedia software etxearen *Lurrazpiko kondaira* CD-ROMak.

Multimedia-software-rik onena: Ikastolen Elkarteak ekoiztutako *Birraitonaren museoa I* CD-ROMa.

Ekitaldian bertan Joxe Ramon Zubimendi Ikasmaterialen Aholku batzordekiak atondutako *Ortotipografia* liburua aurkeztu zen. Ikasmaterialentzako estilo liburuaren lehen atala da, eta ondotik liburu-gehiago ere etorriko dira.



EAEko Irakaskuntza Publikoko Mahaia protestan da 0-3 zikloagatik

EAEko Irakaskuntza Publikoko Mahaiak elkarreratzea egin zuen Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzan abenduaren 16an. Modu horretara, Hezkuntza Sailaren borondate eza salatu nahi izan dute 0-3 zikloaz hitz egiteko. Behin baino gehiagotan adierazi omen diote hitz egiteko nahia, baina ez dute erantzunik jasotzen.

Irakaskuntza Publikoko Mahaiaren dauden eragileak hauek dira: EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarteak, Sortzen-Ikasbatuaz, CCOO, EILAS, ELA, LAB, UGT, Sarean, BIHE eta Haur Eskolen Koordinadora.

Protesta egiteaz gain, 0-2 urteko zikloaren gaineko azterketa bat egin dute eta hainbat ondorio atera dituzte, hurrengo gutunean zehazten den bezala.



0-2 urteko zikloaren ezarpenaren ondorioak (2-3 ezarrita dago jadanik)

1. Gaur egun tarte honetan dagoen eskaera osoari ez zaio erantzuna ematen; alde batetik, plaza kopurua, hirietan batez ere, ez da nahikoa, eta beste aldetik, ezarritako prezioek egoera sozio-ekonomiko ona ez dutenak kanpogan uzten dituzte. Bekak egon badaude, baina ez dira garaiz ailegatzen.

2. Haur eskola publikoetan askoz gehiago kobratu ohi da pribatuetan baino. Horren ondorioz, familiarentzat koste txikiagoa suposatzen duelako, pribatuak ikasleriaren kaptazioa egin du.

3. Hezkuntza Sailak mapa egiteko hartutako konpromisoa ez du bete eta oraingoz ez dago maparik. Aldarrikatzen dugun Eskola Mapak hurrengo arazoei aurre egin behar die:

- Ekimen publikoan 0-3 zikloa puskatu egiten da. Pribatuan, berriz, ez da horrelakorik gertatzen ikastetxe berean eskain daitekeelako zikloa osorik.

- Plaza gutxiago eskaintzen dira publikoan pribatuan baino.

- Eskaintza publikoa gehienbat herri txikietan gauzatzen da, pribatuak eskaintza ez duen herrietan, hain zuzen ere.

- Egoera horrek eskola publikoa subsidiarioa izatearen joera bultzatzen du.

- Dekretua indarrean dagoenetik pribatua da gehien hazi dena. Bizkaian pribatuaren alde sekulako aldea dago, Gipuzkoan eta Araban ez, aurretik existitzen ziren haur eskolak edo publikoak zirelako (Gazteizen, esate baterako) edo publikatu egin direlako (Gipuzkoan). Gainera, Gipuzkoako hainbat herritan dagoen haur eskola publiko bezala kontatzen dugu udalerena delako, baina gestioaren azpikontratazioa dela medio, ikastetxe pribatu baten menpe dago (ikus taula).

4. Lan baldintzak hezkuntzaren beste mailetan ematen direnengadik urrun daude, kaxkarrenak ikastetxe pribatuetakoak direlarik. Haur eskola publikoetan ere arazoak sortzen ari dira negoziazioetan.

Irakaskuntza Publikoaren Mahaia (EHIGE, Sortzen-Ikasbatuaz, CCOO; EILAS, ELA, LAB, UGT, Sarean, BIHE, Haur Eskolen Koordinadora)

04/05ko matrikula	Araba				Bizkaia				Gipuzkoa				Guztira			
	Pub. %		Prib. %		Pub. %		Prib. %		Pub. %		Prib. %		Pub. %		Prib. %	
0-1 urte	127	75,15	42	24,85	231	30,34	489	69,66	443	44,39	555	55,61	783	41,89	1.086	56,11
1-2 urte	649	84,07	123	15,93	545	26,19	1.536	73,81	931	49,89	935	50,11	2.125	45,03	2.594	54,97
2-3 urte	776	82,47	165	17,53	758	27,24	2.025	72,76	1.374	47,97	1.490	52,03	2.908	44,14	3.680	55,86

Muga guztien gainera ...euskaraz!

Garraldako eskola Eskualdeko haurren topagune

Nafarroa Garaiko eskualde garaietako bat da Aezkoa. Iruetik iparralderantz abiatu eta Pirinio mendien sarreran agurtzen gaituzte herri txiki eta isil horiek. Etxe dotoreek, belardi zabalek eta baso ederrek lasaitasuna eta sosegua igortzen dituzte. Goizean goiz herri guztietatik barra igarotzen den autobusak apurtzen du isiltasuna. Herriko haurrak Garraldara doaz, han baitago eskualdeko eskola: Orreagako Ama eskualdeko ikastetxe publikoa.

Garraldan biltzen dira Aezkoako, Erroibar erdiko (Bizkarreta, Ureta, Mezkiritz eta Aurizberri), Auritz-Orreagako eta Luzaideko haurrak. Bertan baitago eskualdeko eskola publikoa. Haur Hezkuntzatik hasi eta DBHra arte ikasten dute bertan, eta gero ia denak Iruñera jotzen dute. Salbuespenak Aurizberri, Auritz eta Luzaide dira. Hiru herri horietan Haur eta Lehen Hezkuntza eskaintzen duten eskolak daude; Auritzen 4. mailara arte eta Aurizberri eta Luzaiden 6. mailara arte. Beraz, hori bukatu ostean joaten dira Garraldara. Guztira 112 ikasle eta 27 irakasle biltzen dira Orreagako Ama eskolan.

Garralda ez da inguruko herririk handiena, ez zen hori izan eskola bertan kokatzeko arrazoia. Gaur egun 220ko mugan dago bertako biztanle kopurua.

Eskola txikien ezaugarriak ditu

Nahiz eta eskualdeko eskola izan, ez da ikastetxe handia, eta adin desberdinetako haurrak nahastuta egon ohi dira. Esate baterako, Haur Hezkuntzan 3 eta 4 urtekoak elkarrekin daude eta 10eko taldea osatzen dute. 5 urtekoak eta Lehen Hezkuntzako 1. mailakoak ere batera daude eta bederatzi dira. 2. eta 3. mailakoek ere bederatziko taldea osatzen dute. 4. mailakoak bakarrik

daude eta 10 dira. Hurrengo taldea 5. mailako lau hurrek eta 6. mailako zortzik osatzen dute.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan taldeak adinka banatuta daude, baina ez dira handiak. DBHko 1. mailan 18, 2. mailan 13, 3. mailan 8 eta 4. mailan 7.

Taldekatze horiek urtero-urtero egiten dituzte ikuskaritzatik jasotzen dituzten bitartekoan arabera. Aurten, adibidez, bost unitate edo bost tutoretza eman dizkiete Haur eta Lehen Hezkuntzarako, eta horren arabera egin dituzte taldeak. Gauza bera gertatzen da DBHn ere. Legediak esaten du ikasle kopuruaren arabera zenbat unitate dagozkien.





Gela bateratuen aberastasuna

Adin desberdinetako haurrekin lan egiten dute Garraldako irakasle guztiek, eta horren inguruan bakoitzak bere iritzia du. Printzipioz zailtasuna omen dakar, ez baita berdina talde bakar bat gidatzea, bere programarekin, bere helburuekin, bere material didaktikoarekin... edo talde desberdinak aurrera eramatea helburu desberdinekin, maila desberdinekin, material didaktiko desberdinekin... Batzuek eragozpena ikusten dute lan egiteko modu horretan; beste batzuek, ordea, aberastasuna. Bakoitzak lan hori ulertzeko moduan dago gakoa.

Xabier Errea irakaslea zazpi urtez ibili zen eskola txiki batean. *“Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara arteko haurrak neuzkan gela berean. Are gehiago, 1. mailakoak D ereduan hasi ziren, eta gainontzekoak An zuden. Hurrengo ikasturtean, 1. eta 2. mailakoak D ereduan eta besteak gaztelaniaz. Horrela, denak Dra pasa arte. Urte horietan egindako lana nire bizitzako politena izan zen, dudarik gabe. Ez dut inolako zalantzarik. Lana ere bai, lana bazen. Etxera leher eginda ailegatzen nintzen egunero. Baina oso interesgarria izan zen”.*

Begoña Mintxeko zuzendariaren iritziz kontua ohitzea da. *“Ikastetxe handi batetik baldin bazatoz eta gela handietara eta denekin gauza bera lantzerako ohituta baldin bazaude, lehen inpresioa kaosarena da. Baina ohitzea da kontua: beste modu batera planteatzea eta antolatzea gelako lana”.*

Ikasleentzat oso aberasgarria dela diote biek. *“Adibidez, ikasle txikien-*

tzat oso aberasgarria da beraiek baino helduagoekin egotea. Sarritan gauzak mugatuta dauzkagu, baina askotan gai dira gehiago ikasteko eta ulertzeko. Helduek txikiei erakusten dietenean ere, hezkuntzaren beste ikuspegi bat hartzen dute”.

Edonola ere, Xabierren iritziz adin desberdinetako haurrak elkartze hutsak aberastasuna dakar, baina horrek ez du bermatzen dena, irakaslearen jarrera oso garrantzitsua da. *“Inguruko eskola txiki batean urtero aldatzen zen irakaslea. Etortzen zen berria lan askorekin topatzen zen eta ez zuen egoeraz gozatzen. Eta horren ondorioak islatzen ziren. Eskola haren funtzionamendua ez zen egokia eta itxi zenean arnasa hartu genuen denok”.*

Eskolaren euskalduntze prozesua

Orain dela 17 urte hasi ziren D ereduarekin. Ordura arte A eredu bano ez zen eskaintzen. Aldaketa poliki-poliki joan da, eta hasieran zaila izan ba-

Nahiz eta eskualdeko eskola izan, ez da ikastetxe handia, eta adin desberdinetako haurrak nahastuta egon ohi dira.



zen ere jende gutxi aukeratu zuelako eredu euskalduna, prozesua edo ibilbidea naturala izan da.

Memento hartan, 1987an, D ereduaren aldeko eskaera egiten hasi zen zonaldeko jendea. Bailarako udalek eskaera bateratua egin zuten eta guraso elkarteak ere bai. Nafarroako Gobernuak berak ere D ereduaren alde egiten zuen garai hartan. *“Gogoratzen naiz*





zonaldeko ikuskariak eta euskara teknikariak, biek, gurasoak deitu eta hitzaldi bat egin zutela D ereduko matriculazioaren alde” dio Xabierrek. “Tripartitoko garaiak izango ziren. Gaur egun ez zen posible izango”.

Hasieran familia gutxi batzuk aukeratu zuten euskarazko eredu, bereziki euskaltzaleak zirenek eta motibazio berezia zutenek. Urteik urtera, ordea, kopurua haziz joan zen eta gaur egun eskolak euskaraz funtzionatzen du.

Desagertu, oster, ez da desagertu A eredu. Bakan batzuk badira ere, oraindik eredu horren aldeko hautua egiten dutenak badira. Ikasturte honetan Haur eta Lehen Hezkuntzan gela bakarra dute, bost hurrekin: 4 urteko bat, 1. mailako bat, 4. mailako beste bat eta 6. mailako bi. DBHren kasuan, 1. eta 2. mailakoak elkarrekin daude, bi eta bi; eta 3. eta 4. mailakoak ere bai, kasu honetan 3 eta 4. Azken finean, eskola barruan eskola txiki bat izango balitz bezala funtzionatzen du A ereduak.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak kasu batzuetan D ereduko ikasleekin biltzen dira. Blanca Carballo irakasleak hala dio: “4 urteko haur bat eta 11 urtekoa ezin dira elkarrekin jarri soinketa egiteko. Horrelako kasuetan beste taldeekin jartzen ditugu”.

Irakasleek diotenez, haur horien egoera nahiko kaxkarra da eta sozializazio aldetik ez da batere goxoa. Pedagogia aldetik ez da batere eredugarria, noski. Egokiena eredu hori kendu eta denak euskarazko ereduari jartzea izango litzateke, baina guraso batzuen hautua ez da hori. “Horregatik diogu A eredu desagertzeaz dagoela, baina ez da desagertuko” azaltzen digu Xabierrek. “Izan ere, zonaldeko ikastetxe pu-

bliko bakarra da gurea, eta beraz, aukera desberdinak eskaini behar ditu, baldin eta Hezkuntza Departamentutik ez badira gauzak beste modu batean planteatzen. Horregatik, gauzak orain dauden bezala, nahiz eta eskaera oso txikia izan, uste dut A ereduaren eskaintza mantendu egingo dela eskola publikoa delako”.

Irakasleen euskalduntzea

Eskola euskaldundu ahala, irakasleek ere euskaldundu egin behar izan zuten. Orain dela 17 urte, A ereduaren besterik ez zegoenean, euskararik ez zekiten irakasleak bazeuden. Ikasleek euskarazko ereduak aukeratu ahala, ordea, irakasle horiek zama lektiborik gabe gelditu ziren eta bi aukera zituzten: euskara ikasi edo ikastetxez aldatu.

Blancak lehendabiziko aukera hobetsi zuen, eta gaur egun eskola berean jarraitzen du euskaraz lan egiten. Beste batzuk joan egin ziren. “Dena dela, ez zen prozesu traumatikoa izan. Denborarekin aurrekusi ahal izan genuen bakoitzaren egoera pertsonala eta al-daketa poliki-poliki egin zen”.

Gaur egun irakasle guztiak euskaldunak dira, bat izan ezik.

Mugikortasuna handia dago klaustroan

Irakasleen lan egoerari dagokionez, gutxi dira behin-betiko bertan

daudenak. Une honetan, esate baterako, 27 irakasle 7 dira finkoak. Gai-nontzekoak ikasturtez ikasturte aldatu egiten dira. Blancak eta Xabierrek urte asko daramate Garraldan eta irakasle finkoak dira. Blancak dioenez, “oso gogorra da ikasturte hasiera beti, dena errepikatu egin behar delako eta berriei dena azaldu behar zaielako. Proiektu edo programa berriak aurrera eramateko zailtasunak sortzen dira, jarraipena zaildu egiten duelako egoera horrek. Eskerrak, hala ere, iazko bitarteko bost irakasle errepikatu egin dutela aurrean. Zama sentsazioa beti sumatzen da, nahiz eta gero jendea lan egiteko gogoz etorri”.

Begoña zuzendariak urte gutxiago daramatza eskola horretan, berriagoa da, eta beste ikuspegi bat du gai horren inguruan. “Mugimendu handia dago, irakasle berri asko dago, eta horrek esperientzia eta ekarpen berriak ekartzen ditu. Urte asko leku berean egoteak bere horretan gelditzeko arriskua dakar. Al-daketak nekagarriak izan daitezke, baina aberatsak ere bai ideia berriak etortzen direlako. Okerrena ikastetxe antolatetaz eta funtzionamenduaz jabetzea izan ohi da. Eta ohitzen zarenerako, ikasturtea bukatu eta hurrengo ikasturtean beste leku batera”.

Edonola ere, etortzen direnak gogoz etortzen direla dio, eta giro polita dagoela irakasleen artean eta ikasleen artean. ●



Naiurobitarra rekin bidaia jolas

"Nairobotarra: mundua
ezagutzeko jolasa" k
tokian tokiko
bitxikeriak
ezagutzeko aukera
eskaintzen dizu.

38 €

Aukeratu
kontinentea,
ibilbidea, bofa dadoa
eta ekin bidaiari.

8 urtetik
gorakoentzat

eskaerak

943 37 15 45 • denda@argia.com
Ohiko salmenta puntuetan



Reggio Emilia

Italia

0-6 udal haur eskolak

Gai guztiek arlo teorikoa, arlo praktikoa eta ikus-entzunezko euskarria izango dute:

- Loris Malaguzziren pentsamenduak eta lan pedagogikoak Haur Hezkuntzan duten eragina.
- Reggio Emiliako pedagogia eta antolaketa oinarriak.
- Haurtzaroaren kultura eta irudia.
- Espresio tailerra eta haurren ehun adierazpideak.
- Hurrekin egindako proiektuak aurkeztuko dira.

hik hasi

elkarrekin

jardunaldiak

Urtarrilak 28-29

Miramar Jauregian

Donostia